

Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko Foru Legea.



Irakurketa
errazean

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

Kredituak

Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko Foru Legea. Irakurketa errazeko bertsioa.

© Nafarroako Gobernua, 2022.

Testu honek ez du balio juridikorik.
Dibulgaziozko bertsio bat da.
Irakurketa errazera egokitutako testua,
eta Inclusion Europearen ereduen arabera
eta UNE 153101 EX arauaren arabera baliozkotutakoa.

Irakurketa errazera egokitzea: Calícrates.

Testuak baliozkotzea: Gure Sustraiak Baserri Eskola.

Diseinua eta maketatzea: Oscar Larrañeta.

Argazkien kredituak:

10., 20., 38., 56., 60. eta 98. orrialdeak: parte-hartze saioak,
lege hau egiteko egindakoak.

13. orrialdea: Asociación D-espacio.

Irakurketa errazeko Europako logotipoa azalean:

© Inclusion Europe.

Argibide gehiagotarako:

<https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/>



Aurkibidea

Aurkezpena	6
Atariko titulua. Xedapen orokorrak	10
1. titulua. Haur eta nerabeen eskubideak	20
2. titulua. Antolaketa administratiboa	38
3. titulua. Aurreneurriak	56
4. titulua. Babesa	60
5. titulua. Jarduketak gazteentzako justizia sisteman	98
Xedapen gehigarriak	102
Erreferentziak	106

Aurkezpena

Eskubideak:

arau-multzotzat dira, eta pertsonen arteko harremanak antolatzeko balio dute.

Eskubideek pertsonak babesten dituzte.

Zer da dokumentu hau?

Esku artean duzun dokumentu hau

Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman

eta haien familiak, **eskubideak** eta berdintasuna sustatzeko

Foru Legearen irakurketa errazterako egokitzapena da.

Agintaritza:

boterea duen pertsona edo organizazioa.

Legeak **agintaritza** batek jartzen dituen arauak dira,

adibidez: gobernu batek edo, kasu honetan, Parlamentuak, zerbait baimendu edo debekatzeko.

Lege honek Nafarroako Foru Komunitateko haurren, nerabeen eta haien familien eskubideak babestu eta interesak defendatzen ditu.

Legea tituluen bidez antolatuta dago.

Titulu bakoitza gai jakin bati buruzkoa da.

Titulu bakoitzaren barnean artikulak daude.

Tituluan jorrotutako gaiari buruz ezartzen diren neurri edo arauetako bakoitza da artikulua bat.

Legearen jatorrizko testua esteka honetan kontsulta dezakezu:

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-8641>

Legea egitean, hurrei eta nerabeei laguntzen dieten pertsonen taldeek eta organizazioek lan egin dute. Adibidez:

- Adingabeei arreta eta babesa ematen dieten entitateak.
- Udalak eta gizarte-zerbitzuak.
- Desgaitasuna duten pertsonak, gazteria eta **gizarte-bazterketako** arriskuan dauden pertsonak ordezkatzen dituzten entitateak.
- Gizain Fundazioa. Adingabeak babesteaz arduratzen da.
- Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako Departamentua, Hezkuntza Departamentua eta Osasun Departamentua.
- Nafarroako Berdintasunerako Institutua. Gaztelaniaz INAI esaten zaio.
- Nafarroako Foru Ogasuna.
- Nafarroako Gobernuaren Migrazio Politiketako, Justiziako, Unibertsitateko eta Etxebizitzako Zuzendaritza Nagusiak.
- **Sindikatu**en ordezkariek.
- Haur eta Nerabeen Nafarroako Kontseilua. Adingabeekin lan egiten duten entitateak eta elkarteak elkartzeko eta parte hartzeko leku moduan balio du. Bere helburuak haurrak eta nerabeak babestearen gain behatzea, aztertzea eta proposamenak egitea dira.

Gizarte-bazterketa: pertsona batek edo pertsona talde batek gizartean parte hartzea zailtzen duen egoera. Diskriminazioarengatik, pobrezia-rengatik eta beste arrazoi askorengatik gertatzen da gizarte-bazterketa.

Sindikatu: langileen elkarteak. Langileen eskubideak eta interesak defendatzen ditu, enpresaburuen aurrean.

Dokumentu honetan, izenburu bakoitzaren ezker aldean dauden argazkiak lege hau egiteko lan-saioetakoak dira.

Jakin behar dituzun hitz garrantzitsuak

Agintaritza: boterea duen pertsona edo organizazioa.

Autonomia: pertsona baten edo pertsonen talde baten gaitasuna, beren kasa jarduteko eta ezeren edo inoren mende ez egoteko.

Baliabidea: bizitzeko behar diren ondasunak edo laguntzak.
Adibidez: janaria, arropa, dirua.

Betebeharrak: legearengatik zerbait egin behar izateko zereginak edo obligazioak dira.

Betebehar batzuk eskubide batzuekin lotuta daude.

Adibidez: adingabeek hezkuntzarako eskubidea daukate, eta hezkuntza hori aprobetxatzeko ikasteko betebeharra.

Delitua: Arau-haustea.

Legez kanpo egindako ekintza.

Delitu larri baten zigorra kartzelara joatea da.

Hain larria ez den delitu baten zigorra, aldiz, isun bat da.

Epailea: epaiketa batean, akusatua erruduna edo errugabea den erabakitzeke agintea duen pertsona.

Gainera, zigorra jar dezake.

Erakunde komunitarioak:

pertsonen komunitateen barnean lan egiten aritzen diren elkarteak edo taldeak.

Eskubideak: arau-multzo bat dira, eta pertsonen arteko harremanak antolatzeko balio dute. Eskubideek pertsonak babesten dituzte.

Gizarte-inklusioa: pertsona batek edozein herritarrek dituen eskubide berberak dauzkan egoera, non gizartean parte hartzen duen haren barnean dagoelako.

Harrera-familia: hainbat arrazoiengatik gurasoekin bizi ezin diren haurrak babesteko neurria. Harrerak ahalbidetzen du haurra beste pertsona batzuekin bizitzea aldi baterako, bere familian dauden arazoak konpontzen diren bitartean.

Intimitatea: pertsona baten arlo pribatua, errespetatu egin behar dena. Pertsona baten sentimenak edo gai pribatuak.

Prebenitzea: kalte edo eragozpen bat ekiditen saiatzea, gertatu aurretik.

Sustatzea: adibidez: pertsona, produktu, zerbitzu edo informazio bat sustatu edo bultzatzeko ekintza.

Xedapena: “xedapena” arlo juridikoan erabiltzen den hitza da, arau zehatz bat edo artikulua bat aipatzeko.





Atariko titulua.

Xedapen orokorrak

Atariko titulua lege honen hasierako titulua da. Hain zuzen, lege honetan kontatzen diren arau guztiek jarraitu behar dituzten ideia garrantzitsuenak azaltzen ditu.

Xedapena:
“xedapena” arlo juridikoan erabiltzen den hitza da, arau zehatz bat edo artikulua bat aipatzeko.

Zein da lege honen helburua?

Lege honen helburua,
Nafarroako Foru Komunitatearen barnean,
haurrek eta nerabeek,
haien bizitzaren alderdi guztietan,
arreta jasotzen dutela ziurtatzea da.
Hala, libre eta berdin hazi ahal dira.
Lege honek proposatzen dituen neurriek
hauek babesten dituzte:
haurrak, nerabeak, haien familiak eta eskubideak.
Gainera, haurtzaroan
eta nerabezaroan bizimodu egokia sustatzeko
eta arazoak **prebenitzeko**

neurriak deskribatzen ditu.

Horrez gain,

epaile batek zainduta edo babestuta dauden
haurrak eta nerabeak gizartean berriro sartzeko
eta orientatzeko jarduketak ere jasotzen ditu legeak.

Nori eta non aplikatuko dugu lege hau?

Nafarroako Foru Komunitatearen
lurraldearen barnean dauden
adingabe guztiei aplikatuko zaie lege hau.

Neurri batzuk adindunei aplikatuko zaizkie,
delitu bat egin zutelako adingabeak zirenean.

Espanian, pertsona bat adingabea da,
18 urte baino gutxiago baditu.

Pertsona atzerritarra bada,
bere herrialdeko legeak esaten duenaren arabera
izango da adinduna.

Prebenitzea:

kalte edo eragozpen
bat ekiditen saiatzea,
gertatu aurretik.

Epailea:

epaiketa batean,
akusatua erruduna
edo errugabea den
erabakitzeko agintea
duen pertsona.
Gainera, zigorra jar
dezake.

Delitua:

Arau-haustea.
Legez kanpo
egindako ekintza.
Delitu larri baten
zigorra kartzelara
joatea da. Hain larria
ez den delitu baten
zigorra, aldiz, isun
bat da.

Herrialde batzuetan, 18 urte bete baino lehen dira adindunak, eta beste batzuetan, 18 urte bete ondoren.

Legeak bizitzako 3 aro bereizten ditu:


- Lehen haurtzaroa
pertsona jaiotzen denetik 3 urtera arteko bizitza-aldia da.
- Haurtzaroa 4 urtetik 12 urtera arteko bizitza-aldia da.
- Nerabezaroa 13 urtetik 18 urtera arteko bizitza-aldia da.



Lehen haurtzaroa
0-3 urte



Haurtzaroa
4-12 urte



Nerabezaroa
13-18 urte

Adingabe baten interes gorena

Legeak adingabe baten interes gorenaz hitz egiten duenean hau adierazi nahi du:
haur edo nerabe batekin lotuta hartzen diren erabaki guztiak
haur edo nerabe hori ongi egoteko
eta bere eskubideei probetxua ateratzeko moduan
pentsatu behar dira.

Lege honetan,
adingabearen interes gorena izango da garrantzitsuena
berarekin zerikusia duten ekintza eta erabaki guztietan.

Konbentzioa:
pertsona, erakunde
edo herrialde talde
batek gai edo kontu
bati buruz ezartzen
duen akordio
garrantzitsua.

Ekintza eta erabaki horiek
nazioarteko bi arautan adostutakoa kontuan hartuko dute:

- **Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa.**
- **Desgaitasuna dutenen eskubideei buruzko Konbentzioa.**

Legeak jarraitzen dituen printzipioak

Printzipioak:
kasu honetan lege
bat orientatu eta
arautzen duten
balioen, sinesmenen
eta arauen multzoa.

Nafarroako pertsonak,
entitateek eta Administrazio Publikoek
adingabearen interes gorenaren printzipioari jarraituta
emango diete arreta adingabeei.

Gainera, hartu beharreko neurriek
printzipio hauei jarraituko diete:

- Neurriak hezigarriak izango dira
eta adingabeak gizartean sartzea lagunduko dute.
Lan egiteko modu hauek lagunduko dituzte:
batetik, haurrei eta nerabeei egokitutakoak,
eta bestetik, herritarrak sentiberagoak izatea lortzekoak,
batez ere, babesgabezia egoeran dauden adingabeekin.
Gizartean parte hartzeko neurriak eskuragarriak izango dira
desgaitasuna dutenentzat.
- Adingabeak beren familian
eta bizi ohi den tokian irautera bideratuko dira neurriak,
hori beretzat kaltegarria bada izan ezik.
Adingabea zaintzeko ardura duten pertsonak
arreta bultzatuko dute haren bizitzaren alderdi guztietan,
bizitza betea edukitzeko
eta eskubide guztiei probetxua ateratzeko.
Neurriek familia aitortu eta babestuko dute,
ulertzen baita adingabeak
normaltasunez garatzeko babes-lekua dela.

→ Neurriek **Konstituzioan** jasotzen diren printzipioak sustatuko dituzte, adibidez: berdintasuna, tolerantzia, elkartasuna eta begirunea. Eta diskriminazio oro saihestuko dute.

Konstituzioa:
Estatuko lege nagusia eta garrantzitsua. Estatuaren antolaketa azaltzen du eta herritarren eskubideak eta betebeharrak finkatzen ditu.

→ Neurriak prebentziozkoak izango dira, hau da, aurretik detektatu eta ezabatuko dute egon litekeen **baliabiderik eza**, materiala edo emozionala izan, adingabearen garapen pertsonala eta soziala eragotzi edo zailtzen badu.

Baliabidea:
bizitzeko behar diren ondasunak edo laguntzak. Adibidez: janaria, arropa, dirua.

→ Neurriek **gurasotasun** positiboaren printzipioari jarraituko diote. Hau da, adingabeen, aiten, amen edo familiako beste pertsona batzuen gaitasunak eta baliabideak hobetuko dituzte. Hala, ongi egiten dutena indartuko dute, gaizki egiten dutenaren gaintetik, eta zailtasun materialak eta emozionalak gainditzen lagunduko dute.

Gurasotasuna:
aitek eta amek gauzatzen dituzten gaitasunak eta trebetasunak, seme-alabei elikagaiak, maitasuna, heziketa, sozializazioa eta babesa ziurtatzeko.

→ Neurriek lagunak izatea, aisiaz gozatzea eta gizarte-harremanak edukitzea lagunduko dute.

→ Adingabeek izan ditzaketan kalteak oneratu dituzte neurriek.

Pribatutasuna:
intimitatea edo norberaren bizitzako zatia, besteengandik babesten duguna.

→ Adingabearen interesaren alde edo hura babesteko egiten denaren **privatutasuna** eta **intimitatea** errespetatuko dute neurriek.

Intimitatea:
pertsona baten arlo pribatua, errespetatu egin behar dena. Pertsona baten sentimenak edo gai pribatuak.

Administrazio Publikoek
printzipio hauek beteko dituzte adingabeekin,
haien familiekin
eta adingabeei arreta ematen dieten
erakunde publiko eta pribatuekin dituzten harremanetan:

→ Sarean lan egitea erakunde publikoen eta pribatuen artean.

Sarean lan egitea

gauza desberdinetan aritzen diren pertsonen

edo erakundeen artean

elkarlanean aritzea da,

arazo bat konpondu ahal izateko.

Sareko lan honek

kasu bakoitza bakarka tratatuko du.

Adingabe bakoitzaren zailtasunak, beharrak

eta non bizi den jaso behar du.

→ Adingabeek etorkizunean izan ditzaketan

arazoak prebenitzeari ahalik

eta garrantzi handiena ematea

eta familia bateko kide izatearen sentimenari eustea.

Arreta goiztiarrari ere garrantzi maximoa emango zaio.

→ Adingabeak bere ingurune hurbileneko, adibidez:

auzoko pertsonekin, adin desberdinetakoekin,

harremanak izatea laguntzea,

toki eta pertsona horiekin lotura sendoa

eta segurua sortzeko.

→ Jardutea, adingabea babesteko.

Profesionalek kudeaketak azkar eta zuzen egingo dituzte,

alde batera utzita euren pentsatzeko era eta sentimenak.

Lege-segurtasuna emango dute.

Arreta goiztiarra:

0 eta 6 urte arteko
haurrei, haien familiei
eta inguruneei
zuzendutako
esku-hartzeak.
Esku-hartze horien
helburua da ahalik
eta azkarrena
erantzutea
garapenean
nahasmenduak
dituzten haurrek
edo nahasmendua
izateko arriskua
dutenek dauzkaten
aldi baterako
beharrei edo behar
iraunkorrei.

- Pertsonarengan zentratutako arreta, hau da, adingabearen eta inguruan dituen pertsonen parte-hartzea kontuan hartuko da haren bizitzari buruzko erabakiak hartzeko, arreta ematen dioten profesionalak eta zerbitzuak ere aintzat hartuta.
- Hartutako neurriek eta ekintzek adingabeen ongizatean nola eragiten duten baloratzea.
- Adingabeak profesional bat izango du berarekin, prozesu osoaren hasieratik amaieraraino.

Diskriminazio-egoerak gertatzea eragozteko eta berdintasuna bermatzeko, hauek kontuan hartuko ditugu:

- Neskentzako aukerarik eza eta berdintasunik eza egoera askotan. Behar horiei arreta emango diegu, sortzen badira.
- Desgaitasuna dutenen eskubideei buruzko Konbentzioan aitortzen diren eskubideak beteta tratatuko dira desgaitasuna dutenak.
- Adingabeek eta haien familiek diru-behar garrantzitsuenak beteta edukitzea ziurtatzea.
- Adingabe etorkinei eta haien familiei harrera ona egitea eta haiekin ongi esku hartzeari laguntzea, eta bai kultura desberdinen arteko bizikidetzak ona ere.

Erantzukizun partekatua eta herritarren lankidetzaz

- Adingabe baten gaineko erantzukizuna duen pertsona batek hari arreta eta zainketak eman behar dizkio, bizi-kalitate ona izateko, ongi hazteko eta gizartean egoki parte hartzeko.
- Adingabeen aitek, amek eta tutoreek lege hau betetzen lagunduko dute.
- Pertsona orok salatuko du dagokien agintarien aurrean adingabe bat abandonatuta dagoela edo bere eskubideak ez direla betetzen. Lege honetan onartutakoari jarraituta, agintariek neurriak hartuko dituzte.

Arau berriak ebaluatzea

Nafarroako Administrazio Publikoek

ebalatu egingo dute

ezarritako arau berriek

nola eragiten dieten haurrei,

nerabeei eta haien eskubideei.

Ebaluatu:

pertsona baten,
zerbitzu baten,
arau batzuen edo
edozein objekturen
errendimendua
baloratu edo
neurtzea, zeukan
helburua bete den
ikusteko.

Ingurune atseginak eta komunikaziorako modua

- Adingabeek erabili behar dituzten espazio eta ingurune publiko seguruak eta atseginak sortuko ditugu.
Batez ere, denbora luzea igaro behar duten espazioak, hala, adingabeak asko urduritzea ekiditeko.
Indarkeriaren biktima diren haurrei eta nerabeei espazio horietan emango diegu arreta, haien bizitzaren alderdi guztietan.
- Administrazio Publikoek adingabeekin duten komunikazioa errespetuzkoa, hurbila, positiboa eta adingabe bakoitzaren egoerara moldatutakoa izango da. Komunikazio horrek arreta berezia emango die desgaitasuna duten edo zailtasunak dituzten adingabeei.
- Familiei argi eta errespetuz jakinaraziko zaizkie haien semeari, alabari edo harreran hartutako adingabeari buruz profesionalak edo entitate publikoek hartzen dituzten erabakiak, ezarrita dauden arauak beteta.



1. titulua.

Haur eta nerabeen eskubideak

Adingabeek Nafarroako Foru Komunitatean dauzkaten eskubideei eta **betebeharrei** buruzkoa da titulu hau.

Adingabeek Nafarroako Foru Komunitateko gainerako gizartearekin dauzkaten harremanei buruzko arauak kontaktzen ditu titulu honek.

Helburua da pertsonak babestea, kasu honetan, adingabeak.

Betebeharrak:
legearengatik zerbait egin behar izateko zereginak edo obligazioak dira. Betebehar batzuk eskubide batzuekin lotuta daude. Adibidez: adingabeek hezkuntzarako eskubidea daukate, eta hezkuntza hori aprobetxatzeko ikasteko betebeharra.

Printzipio orokorrak

Adingabeen eskubideak babestea

Nafarroako Administrazio Publikoek adingabeen eskubideak eta askatasunak bermatzen dituzte. Eskubide eta askatasun horiek hemen aitortuta daude:

- Konstituzioan.
 - Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan.
 - Nazio Batuen Desgaitasuna dutenen eskubideei buruzko Konbentzioan.
 - Adingabearen Babes Juridikoaren Lege Organikoan, **Kode Zibila** eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzekoan.
- Lege horiek hauek lantzen dituzte:
haurren eskubideak, epaiketetan izan behar duten babesa eta nork har ditzakeen erabakiak haiengatik.

Kode Zibila:
herrialde bateko
legeen multzo
ordenatua.

Adingabeen eskubideak betetzeko beharrezkoak eta legezkoak diren neurriak hartuko dituzte administrazio horiek.

Ez da diskriminaziorik egingo arraza, erlijio, hizkuntza, **etnia**, iritzi, jaioterri, egoera ekonomiko, desgaitasun, edo norberaren, familiaren edo gizartearen esparruko beste edozein arrazoiengatik.

Diskriminatzea pertsona bat beste bat baino okerrago tratatzea da, egoera berebean eta inolako justifikaziorik gabe. Lege honek pertsonak okerrago tratatzea debekatzen du.

Etnia:
kulturaren
edo arrazaren
ezaugarriak
partekatzen dituzten
pertsonek multzoa.

Adibidez: ezin da okerrago tratatu beste herrialde batean jaio den pertsona bat.

Nafarroako Arartekoak

adingabeen eskubideak babestuko ditu, modu hauetara:

- Eskubideetakoren bat ez betetzeagatik kexarik badago, esku hartuko du. Arartekoak ikusten badu delitua egon daitekeela, agintariei jakinaraziko die. Adingabeek kexak aurkeztu ahal dituzte Arartekoan, haiekin inor joan gabe.
- Nafarroako Administrazio Publikoei eskatuko die lege hau eta bertako neurriak betetzeko, eta txosten bat egingo du urtero, Nafarroako Komunitateko adingabeen egoerari buruz.

Arartekoa: erakunde bat da, eta herritarren eskubideak eta askatasunak betetzen direla zaintzen du.

Haur eta nerabeen eskubideen berri zabaltzea

Nafarroako Administrazio Publikoek ahal duten guztia egingo dute haur eta nerabeen eskubideen berri zabaltzeko, ekitaldiak eta jardunaldiak antolatuta. Familien, **harrera-familien** eta adingabeekin aritzen diren pertsona, erakunde edo organizazio ororen laguntza izango dute. Gainera, ahal duten guztian lagunduko diete gurasoei, tutoreei, **zaintza dutenei** eta adingabeekin aritzen diren profesionalei, haien gainean duten erantzukizuna betetzeko.

Harrera-familia: hainbat arrazoiengatik gurasoekin bizi ezin diren haurrak babesteko neurria. Harrerak ahalbidetzen du haurra beste pertsona batzuekin bizi den aldi baterako, bere familian dauden arazoak konpontzen diren bitartean.

Zaintzailea: pertsona bat zaintzeaz arduratzen den pertsona, nahiz eta ez agindu epaile batek. Tutoretzak gurasoena edo administrazioarena izaten jarraituko du.

Eskubideak: haien ezagutza eta erabilera babestu eta sustatzea

Sustatzea:

adibidez: pertsona, produktu, zerbitzu edo informazio bat sustatu edo bultzatzeko ekintza.

Bizitzarako, osotasun fisiko eta psikikorako, eta garapenerako eskubidea

Osotasun fisikoak berekin dakar gorputzeko atal guztiak babestu eta zaintzea.

Horrek pertsonen osasun-egoera ekartzen du berekin.

Osotasun psikikoa mugimendu-, emozio-, psikologia- eta buru-gaitasun guztiak zaintzea da.

Edozein motatako indarkeria pairatzen duen edozein adingabe babestuko dute eta arreta emango diote

Nafarroako Administrazio Publikoek, eta haientzako ingurune segurua sortuko dute. Era berean, adingabeak babestuko dituzte lan-esplotazio edo **-abusu** mota orotatik eta kalean dirua edo janaria eskatzen aritzetik.

Abusua:

gehiegikeria- edo esplotazio-ekintza, pertsona batek edo gehiagok egin dezaketena. Hauengatik gerta daiteke: gehiegizko agintea edo konfiantza, traizioa izanda harreman pertsonaletan, gehiegizko indarra. Sexu-abusua edo ekonomikoa ere izan daiteke.

Ohorerako eta ospe onerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea, eta datu pertsonalen babeserako eskubidea

Hurrek eta nerabeek haiei errespetua ez galtzeko eta haiei buruz gaizki ez hitz egiteko eskubidea daukate. Haien intimitateari eta irudiari kalterik ez egiteko eskubidea ere badaukate.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak adingabeekin Datuen Babeserako Legea betetzen dela zainduko du.

Garrantzi berezia emango dio adingabeak Interneten eta sare sozialetan babesteari.

Adibidez:

adingabeen irudiak kaleratzea Interneten baimenik gabe.

Datuen Babeserako Legeak

herritarren datu pertsonalak tratatzea zaintzen du.

Nortasunerako eskubidea

Nortasuna pertsona edo gauza baten ezaugarrien multzoa da eta batzuk besteetatik bereiztea ekartzen dute.

Adibidez: bere izena, jaiolekua, janzteko era.

Nafarroako Foru Komunitateak adingabeen nortasuna babestuko du modu hauetara:

→ Ospitale publiko edo pribatuetan jaiotzen diren adingabeak ongi identifikatuta egotea ziurtatuko du, adibidez: familia baten eta beste baten artean haurrak aldatzea eragozteko.

→ Familiek edo tutoreek adingabe guziak **Erregistro Zibilean** inskribatzeko behar diren neurriak jarriko ditu. Tutore bat beste bat zaintzeko baimena duen pertsona bat da, edo adingabea delako, edo ez duelako jarduteko gaitasun osoa, laguntza behar duelako.

Erregistro Zibila: pertsona fisikoen egoera zibilari buruz gertatzen dena jasota uzteko ardura duen zerbitzu publikoa. Adibidez: jaiotzak edo heriotzak.

Adingabeak bere kultur nortasuna libreki aukeratzea babesten du legeak.

Kultur nortasuna **balioen**, tradizioen, sinesmenen eta jokaeren multzoa da.

Batasun moduan balio dute, gizarteko talde bateko kide izateko.

Adibidez: kultur nortasuna herrialde edo erlijio batekoa da.

Legeak babesten du adingabeak libreki aukeratzea bere sexu-nortasuna bizi eta garatzea.

Pertsona batek bere buruari, gorputzari eta ezaugarriei buruz sentitzen duenarekin zerikusia du sexu-nortasunak.

Pertsona jaio zeneko sexuarekin identifikatu ahal da edo ez.

Adibidez: pertsona batzuek ez dute sentitzen jaio zireneko gorputzaren sexu-nortasuna.

Horregatik, pertsona horiek sexua aldatzen dute.

Informaziorako eskubidea

Nafarroako Administrazio Publikoek lagunduko dute adingabeek informazioa eskuratzea hainbat zerbitzuren bidez, adibidez: liburutegi, kulturgune edo beste batzuen bidez.

Nafarroako Administrazio Publikoek lagunduko dute hedabide guztiek, adibidez: telebistek, publizitateak edo irratiek, kontuan hartzea adingabeen hezkuntza eta kalterik ez egitea haien garapenari.

Balioak:

pertsona edo pertsona-talde baten jokaera-printzipioa. Pluralean erabiltzen da.

Nafarroako Administrazio Publikoek zainduko dute adingabeentzat debekatuta dauden jarduerak bultzatzen dituzten publizitate-iragarkietan inork ez erabiltzea adingabeak, adibidez: erretzen edo alkohola edaten erakutsita.

16 eta 17 urtekoen nagusiek lan-baldintzen berri emango diete, adibidez: ordutegiaren eta soldataren berri.

Pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna

Nafarroako Administrazio Publikoek ekintzak egingo dituzte gurasoek edo **legezko ordezkariak** errespetatzeko adingabeek pentsamendua, kontzientzia eta erlijioa libreki aukeratzea.

Adibidez: iritzi askea eman ahal izatea beren ideia politikoei, bizitzaren gaineko ideiei edo sinesmenen gaineko ideiei buruz, esate baterako, erlijioaren sinesmenei buruz.

Legezko ordezkaria: beste baten izenean erabakitze gaitasuna duen pertsona. Legeak ematen dio gaitasun hori.

Gizartean parte hartzeko eta elkartegintzarako eskubidea

Bizi diren tokiko gizartean eta kulturean parte hartzen lagunduko diete Nafarroako Administrazio Publikoek adingabeei.

Parte hartzeko moduetako bat Gazteen Parlamentua izango da.

14 eta 30 urte arteko pertsonak osatzen dute Gazteen Parlamentua, eta hauteskundeetan aukeratzen dituzte.

Gazteen Parlamentuak proposamenak egiten ditu, eta gero Helduen Parlamentura iristen dira. Helduen Parlamentua Nafarroako Parlamentua da. Adibidez: haurrak eta nerabeak babesteko lege hau Gazteen Parlamentuan landu zuten bere garaian: irakurri egin zuten eta proposamenak egin zituzten. Proposamen horiek Nafarroako Parlamentura iritsi ziren, eta han aztertu egin zituzten eta legean sartu edo ez erabaki zuten.

Nafarroako Administrazio Publikoek haurrentzako eta gazteentzako elkarteak sortzen lagunduko dute eta gazteek haietan parte hartzea bultzatuko dute. Beharrezkoa bada, Administrazio profesionalen kudeaketari buruzko laguntza eta aholkuak emango dizkiete.

Adingabeek boluntariotzako jardueretan parte hartzea bultzatuko dute Administrazio Publikoek.

Entzunak eta adituak izateko eskubidea, eta adierazpen-askatasunerako eskubidea

Gurasoek, tutoreek, zaintza dutenek eta Administrazio Publikoetako profesionalen bermatuko diete adingabeei administrazioek, epaitegiek eta familiek entzunak eta adituak izateko eskubidea.

Desgaitasuna dutenek eskuratzeko modukoa izango da informazio guztia.

Nafarroako Administrazio Publikoak adingabeak libreki adierazi ahal izatea bermatuko du eta haien iritzia aintzat hartzea, beren adina edozein dela ere. Ez da beharrezkoa zerbaiti buruzko ezagutza edukitzea, pertsona nagusiek ez duten moduan. Adingabeek iritzia ematea babestea, aintzat hartuko direla jakitea eta batzuetan zergatik ez diren aintzat hartzen azaltzea garrantzitsua da.

Osasunaren babeserako eskubidea

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoak bermatuko die adingabeei osasuna babestu eta zaintzeko eskubidea eta osasun-laguntza jasotzekoa.

Beren osasunari buruzko informazioa beren adina, **heldutasuna**, egoera psikologikoa eta desgaitasuna aintzat hartuz egokia den hizkera batean jasotzeko eskubidea dute adingabeek. Informazio horrek hauek hartuko ditu, besteak beste: noiz izan daitekeen ona tratamendu bat edo nahi ez diren ondorioak izan ditzakeen. Jarduketa horien ondorioz gerta daitekeen sufrimendu fisikoa edo psikologikoa eragitea ekidingo dute profesionalek.

Heldutasuna: zentzuduna eta burutsua den eta gauzak ongi aztertzen dituen pertsona baten ezaugarria.

Beren osasunaren gainean hartzen diren erabakietan baimena emango dute adingabeek egoera hauetan:

- 16 urte edo gehiago badituzte.
- 16 urte baino gutxiago izan arren, erabakiak hartzeko heldutasuna eta iritzi propioa badute.

Gurasoek edo tutoreek baimena emango dute, adingabeak ordezkatzuz:

- Ez badute adimen-gaitasun nahikoa edo gaixotasun psikiatriko bat badute eta horrek erabakiak hartzea eragozten badie.

Osasun-langileak ez badira gai adingabeari egoera medikoa azaltzeko, ez dakitelako nahiko heldua den edo ez, eskolako profesionalei edo adingabea hobeki ezagutzen duten senitartekoei eskatu ahal diete laguntza.

Administrazio Publikoek bermatuko dute adingabeen eskubide hauek betetzen direla:

- Beren **espediente** mediko eta soziala sekretuak izatea.
- Gurasoek, tutoreak, zaintza duenak edo konfiantzazko pertsonak lagun egin ahal izatea osasun-arreta jaso bitartean.
Hori ezingo da hala izan, osasun-langileek debekatzen badute.
- Eskolako prestakuntza hartzea, ospitalean edo etxean dagoen bitartean osasun-egoera baten ondorioz.
Ospitaleetan, adingabeentzako guneak egongo dira. Gune horietan, jostailuak, liburuak eta filmak egongo dira aisiarako beste aukera batzuen artean.

Espedientea:
gai jakin batekin lotutako dokumentuen eta kudeaketan multzoa.
Adibidez: espediente mediko batean pertsona batek bizitza osoan izan dituen gaixotasunen eta tratamenduen txosten guztiak daude.

Osasun-arloko profesionalek jokabide-laguntza positiboaren eredia baliatuko dute adingabeentzat eta haien familientzat, batez ere, desgaitasun intelektuala eta portaera-arazoak dituzten pertsonen aplikatuta.
Portaera txarrak murrizteko eta pertsonari bizi-kalitate hobea emateko metodoa da jokabide-laguntza positiboa.

Epaile batek agindutako babes-neurriak baditu adingabe batek, adibidez: tutoretza edo zaintza, arreta ematen dion profesionalen taldeak haren arazo medikoen berri eduki ahal izango du.

Hezkuntzarako eskubidea

Nafarroako Administrazio Publikoak adingabe guztiei arreta emateko adina ikaspostu dagoela bermatuko du. Gainera, adingabea hezten lagunduko die familiei.

Jazarpena prebenitu eta ezabatzeko lan egiten duen departamentuak neurri hauek erabiliko ditu hori lortzeko:

- Ikasleen artean harreman onak egotea bultzatuko du, emozioak landuta, besteen tokian jarrita eta ulertzen saiatuta, eta eztabaidak modu baketsuan konpontzen saiatuta.
- Ikastetxeetan bizikidetza-planak egiten lagunduko du. Bizikidetza-planak dokumentu batzuk dira, eta ikastetxea osatzen duten pertsonen artean harreman onak sortzen laguntzen dute.
- Egoera berezian dauden adingabeei laguntza eta babesa emateko pertsonak edukiko ditu.

Adibidez: **mentoretza**-programa, non ikasle batzuek beste batzuei laguntzen dieten edo bizikidetza-arazoak dituzten adingabeei.

Hezkuntza-arloko departamentuak eskola inklusiboa bultzatuko du, bizikidetza-planak egiteko, familiak eta irakasleak entzuteko, bakarka lan egiteko adingabe bakoitzarekin, talde desberdinen arteko harremanak ezartzeko eta eskola-bitartekotzako pertsonen figura sortzeko.

Mentoretza:

2 pertsonaren arteko harremana, non esperientzia edo ezagutza handiagoa duen pertsona batek esperientzia edo ezagutza txikiagoa duen bati laguntzen dion.

Eskola-bitartekotzako pertsonak ikasleen arteko gatazkak konpontzen laguntzen dute modu egoki batean.

Nafarroako Administrazio Publikoak ikastetxeek tresna digital egokiak edukitzen lagunduko du, adibidez: ordenagailuak eta arbel digitalak. Hala, bermatuko du adingabe guztiek aukera berberak edukitzea. Horrez gain, Administrazioak ziurtatuko du ikastetxe guztiek jantoki-zerbitzua eskaintzen dutela.

Kultura eta aisialdirako eskubidea eta harremanen sustapena

Nafarroako Administrazio Publikoek lagunduko dute adingabe guztiek parte hartu ahal izatea jolasetan, aisian, eta kulturako, kiroleko eta denbora libreko jardueretan.

Eskubide hori beharrezkoa da ongi garatzeko eta adingabeen arteko harreman sozial egokiak izateko. Aisiako jarduerak, jolasak eta kirolak egokituta egongo dira desgaitasuna dutenentzat.

Adinaren arabera ere egokituta egongo dira.

Jasangarritasuna:
egungo gizartearen beharrei erantzutean datza, etorkizuneko gizartearen beharrak arriskuan jarri gabe. Era berean, hauen artean oreka egotea ziurtatzen da: ekonomiaren hazkundera, ingurumenaren aldeko errespetua eta gizartearen ongizatea.

Ingurumenerako eta jasangarritasunerako eskubidea

Ingurumena zaintzeko

eta klima-aldaketaren kontra borrokatzeko betebeharrak betetzen lagunduko du Nafarroako Administrazio Publikoak.

Adingabeentzat ingurumen zaindua eta kutsadurarik gabea edukitzeko ekintzak sustatuko ditu Administrazio Publikoak.

Hauek dira ekintza horiek:

- Natura errespetatu eta zaintzen irakastea adingabeei.
- Hondakinak birziklatzeari eta baliabideak arduraz erabiltzeari buruzko prestakuntza ematea.

Gizarte-inklusioa:
pertsona batek edozein herritarrek dituen eskubide berberak dauzkan egoera, non gizartean parte hartzen duen haren barnean dagoelako.

Gizarte-inklusiorako eskubidea

Nafarroako Administrazio Publikoak

edozein adingaberen gizarte-inklusioa bermatuko du, baita desgaitasuna duten adingabeena ere.

Administrazio Publikoak haurren pobrezia ekidingo du, laguntza ekonomikoen bidez, edo dirulaguntzak emanda, edo seme-alabak edukitzeagatik zerga batzuk ordaindu gabe gelditzea utzita.

Era berean, Administrazio Publikoak kontuan hartuko ditu seme-alabak dituzten familiak eta adingabeak harreran hartuta dituztenak **etxebizitza publikoa** ematean.

Etxebizitza publikoa:
administrazio baten esku dagoen etxebizitza-mota bat da, adibidez: udal baten, autonomia-erkidego baten edo estatu baten esku.

Nafarroako Foru Komunitatean dauden adingabe atzerritarrei baliabideak eta zerbitzuak bermatuko dizkie Nafarroako Administrazio Publikoak, arreta ona eta inklusioa izateko. Hori hala izango da, Espainian egoteko dokumentuak eduki edo ez.

Behar bereziak dituzten adingabeak babestu egingo ditu Administrazio Publikoak, gizarte-inklusioa, pertsona moduan guztiz garatzea eta lanpostu bat eskuratzea ahalbidetuko dien hezkuntza edukitzeko, beste edozein pertsonak bezala, eta beren nahiak errespetatuta.

Behar bereziak dituzten 6 urte arteko adingabeei arreta goiztiarra bermatuko die Administrazio Publikoak, adibidez: garapenean alterazioak dituztenei edo arazo psikologikoak dituztenei gai sozialengatik, haien gizarte-inklusioa bermatzeko.

Eskubide ekonomikoak eta lanekoak

Nafarroako Administrazio Publikoak adingabeak babestuko ditu egon litekeen engainu edo aprobetxamendu ekonomiko batetik, adibidez: legeak agintzen duen adin minimora heldu gabe lan egitetik, lan arriskutsu bat egitetik, osasunerako edo hezkuntzarako kaltegarria denetik. Zigorrek gogorrek izango dira, legeak esaten duen moduan.

Gizarte-integrazioa helduaroan

Adingabeen erantzukizunak

Adingabeen gurasoek edo legezko ordezkariak gai hauen gaineko erantzukizuna beren gain hartzen ikasten lagunduko diete adingabeei:

- Derrigorrezko Hezkuntzan ikastea.
Adingabeek ikastetxera joan behar dute, eta bizikidetzara-arauek bete behar dituzte.
- Ikasten ari diren ikastetxeko irakasleak, lankideak eta ikaskideak errespetatzea.
Gizartean, errespetuzko jokaera izatea, **toleranteak** izatea gainerakoekin eta legea betetzea.
- Dauzkaten eskubideak ematen dizkieten betebeharrak eta obligazioak betetzea.
- Etxeko lanetan laguntzea.
- Ingurumena eta kultur ondarea errespetatzea, adibidez: eraikin historikoak, museoak, monumentuak...
Hiri-altzariak errespetatzea, adibidez: zakarrontziak, parkeak, zirkulazio-seinaleak, eta abar.
- Epaille baten aginduz babestutako adingabeak direla-eta, beren kasuan ari diren profesionalekin harremana izatea, beren kezkek kontatu ahal izateko.

Tolerantea:
gainerakoen ideiak, sinesmenak edo jardunbideak errespetatzen dituen, bere ideia, sinesmen edo jardunbideetatik desberdinak edo kontrakoak badira.

Nafarroako Administrazio Publikoak ekintzak egingo ditu eskubideak erakusteko adingabeei, baita bete behar dituzten betebeharrak ere.

Debekuak, mugak eta jarduketak

Gurasoek edo legezko ordezkariak adingabeei buruzko arauak eta debekuak beteko dituzte jardueretan, hedabideetan eta produktuetan, adibidez: ikuskizun publikoetan, telebistan, publizitatean, sare sozialetan, erosketetan, merkataritzan, eta abarretan.

Adibidez: adingabe bat ezin da edari alkoholodun edo tabako-marka baten iragarki batean atera.

Gurasoek edo legezko ordezkariak zaindu beharko dute hori hala izatea.



2. titulua.

Antolaketa administratiboa

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoak eta Nafarroako udalerrietako administrazioek lege honetan erabakita dagoena betetzeko dauzkaten betebeharrei buruzkoa da titulu hau.

Diagnostikoa, plangintza eta ebaluazioa

Diagnostikoa, plangintza eta jarduketan programazioa

Lege honetan proposatzen diren jarduketak egiteko planak sortu baino lehen, Nafarroan hurrek duten egoera aztertuko du Administrazio Publikoak. Unibertsitateek eta adingabeekin lan egiten duten departamentuek egindako azterketak eta Arartekoak egindako txostenak ere kontuan hartuko ditu.

Jarduketan ebaluazioa eta jarraipena

Nafarroako Administrazio Publikoak modu bat edukiko du lege honek proposatzen dituen ekintza guztien **eraginkortasuna** eta kalitatea neurtzeko.

Eraginkortasuna:
ekintza bat egin
ondoren nahi dugun
emaitza lortzeko
gaitasuna.

Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako toki-erakundeen eskumenak

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako toki-erakundeen eskumenak

Adingabeekin lan egiten duten Administrazio Publikoek funtzio hauek izango dituzte:

adingabeen prebentzio- eta babes-programak zuzendu, planifikatu eta kudeatzea.

Programa horiek dituzten helburuak eta edukiak adierazi eta departamentuak finkatuko dituzte, adingabeen eskubideak sustatu eta defendatuko dituzte.

Administrazio Publikoko beste arlo batzuekin edo adingabeekin lan egiten duten erakunde publikoekin ere elkarlanean ariko dira, eta haien jardueren jarraipena eta ebaluazioa egingo dute.

Eskumena:
pertsona, erakunde
edo organizazio
baten gaitasuna, lan
bat egiteko.

Gainera, Administrazio Publikoek hauek egingo dituzte:

→ Baimenduko dute adingabeen zentroak, adopzioan lan egiten duten entitateak eta adingabeekin lan egiten duten entitateak sortzea. Administrazioek zaindu eta kontrolatuko dute zentro horiek lana behar bezala egitea, eta **Adingabeen Erregistroa** administratuko dute.

Adingabeen

Erregistroa:

Administrazio Publikoak babes-neurri bat jarri dien adingabeei buruzko informazio guztia gordetzen duen erakundea.

→ Profesionalentzat eta laguntzen duten pertsonentzat ikastaroak sortu eta emango dituzte adingabeekin lan egiteari buruz. Adingabeei buruzko ikerketa- eta azterketa-programak ere egingo dituzte.

Gainera, profesionalen eta entitateen bilerak proposatuko dituzte, ideiak eta esperientziak trukatzeko eta sarean lan egiteko.

→ Nafarroako Foru Komunitateko auzo eta herrietan udalek haurren eta nerabeen gaian egiten dituzten jarduketak lagundu eta zainduko dituzte.

→ Adingabeekin lan egiten duen Administrazio Publikoak erabakiak hartuko ditu abandonu-egoeran dauden adingabeei buruzko kasuetan eta tutoretza bere gain hartuko du, adingabearen ardura duten pertsonak ez badituzte betetzen beren funtzioak.

Abandonu-egoera

adingabe baten zaintzaren ardura duen pertsona batek babesik gabe uztea da.

Tutoretza da epaile batek pertsona bat izendatzea babesgabetasun-egoeran dagoen adingabe bat zaintzeko.

Legeek adingabeak babesteko ezarritako betebeharrak betetzen ez direnean eta haien behar emozionalak eta materialak betetzen ez direnean gertatzen da babesgabetasun-egoera.

Gainera, adingabeekin lan egiten duen Administrazio Publikoak adingabeak babesteko neurriak onartu edo geldiaraziko ditu.

- Familiei arreta ematen dieten herrietako eta hirietako entitateekin elkarlanean ariko dira. Kasuak oso zailak badira, Administrazioak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.
- Adingabeen harrera-prozesu osoan lagunduko dute eta bai hartzen dituen pertsonak edo familiak zaindu eta kontrolatzen ere.
- Adopzio-prozesu osoa egingo dute, bai nazionala eta bai nazioartekoa ere. Prozesu horrek funtzio hauek hartzen ditu: adopzioari buruzko informazioa ematea, hautagaiak aukeratzea, haien ezaugarriak baloratzea, eta prestakuntza ematea bai adingabe bat adoptatzea eskatzen dutenei eta bai adopzioa lortu dutenei ere. Adoptatzeko helburuarekin adingabe bat zaintzeko prozesu osoari jarraipena egin beharko diote.

- Adingabeen arretarako eta babeserako baliabide bakoitzean nola jokatu esango dute.
- Adingabeen arretarako zentro eta zerbitzu bereziak ere sortuko dituzte.
- Lege honek edo honekin lotuta dagoen beste edozeinek esaten duen edozein funtzio beteko dute.

Nafarroako toki-erakundeen eskumenak

Toki-erakundeak:
 probintziak
 eta udalerrak
 kudeatzen dituzten
 Administrazio
 Publikoen multzoa
 da. Herritarrengandik
 gertuago egoten
 dira.

Nafarroako toki-erakundeak dira Nafarroako herriak, hiriak eta ibarrak. Toki-erakundeen funtzioa izango da adingabeak zaintzeko behar diren baliabide teknikoak eta materialak ematea, adibidez: profesionalak edo laguntza ekonomikoak.

Nafarroako Administrazio Publikoarekin elkarlanean ariko dira ikertzen, erabakiak hartzen, esku hartzen, jarraipena egiten eta adingabeak familian eta gizartean integratzen.

Nafarroako Administrazio Publikoak eta toki-erakundeek delitu bat egin duten adingabeei ezarritako neurriak egingo dituzte. Eta bai adingabe horiek familian eta gizartean integratzeko jarraipena eta babesa ere.

Familia, entitate laguntzaile eta haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioekiko ekintzak

Familiak

Familien sustapena

Familien eta harrera-familien garrantzia eta balioa sustatzen du legeak. Hauek guztiak dira familiak: senar-emazteek, bikotean elkartutakoek eta guraso bakar batek eratutakoak, hau da, aita edo ama batek eta seme-alabek, eta beste harreman batzuetako seme-alabak dituzten bikotekideek elkarrekin osatutakoak.

Administrazio Publikoak seme-alaben kopurua kontuan hartuko du familiei laguntza ekonomikoak emateko.

Administrazio Publikoak laguntzak emango dizkie **familia ugariei**, harrera-familiei eta aita edo ama bakarra duten familiei.

Erakunde komunitarioak: pertsonen komunitateen barnean lan egiten aritzen diren elkarteak edo taldeak.

Familia ugaria: 3 seme-alaba edo gehiago dituzten familiak edo 2 dituztenak, baina haietako batek ehuneko 33ko desgaitasuna baino gehiago duenean.

Entitate laguntzaileak

Kontzeptua eta betebeharrak

Adingabeei arreta ematen dieten entitate laguntzaileak elkarrekin eta fundazioak dira.

Baita adingabeei arreta emateko

Nafarroako Administrazio Publikoaren baimena duen beste edozein erakunde pribatu ere.

Lege honetan deskribatutako entitate laguntzaileak izateko, erakundeek baldintza batzuk bete behar dituzte.

Metodologia **komunitarioa** eta haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioa

Haur eta nerabeen babeserako metodologia komunitarioa

Metodologia komunitarioa gizarte-inklusioa eta adingabeen hezkuntza lantzeko modu bat da.

Hain zuzen, auzo, herri edo hiri bateko herritarrek eta zerbitzu eta zentro publikoek batera egiten dituzte planak, proiektuak eta ekintzak, haurren eta nerabeen alde.

Komunitatea:

arau batzuen pean elkarrekin bizi diren edo interes berberak dituzten pertsonen multzoa. Adibidez: auzo batean bizi diren pertsonak.

Haurren eta nerabeen alorreko organizazio komunitarioak

Haurren eta nerabeen alorreko organizazio komunitarioak dira komunitatearekin planak, proiektuak eta ekintzak egiten dituzten elkarteak, federazioak, fundazioak eta gizarte-entitateak, Nafarroako Komunitateko auzoetan, herrietan eta ibarretan, haurren eta nerabeen eskubideak ezagutarazteko eta defendatzeko.

Koordinazioa eta partaidetzako organoak

Haur eta Nerabeen Nafarroako Kontseilua.

Sorrera

Haur eta nerabeen arloko sustapen, arreta eta babeserako aholkularitza, parte-hartzea eta informazioa emateko balio du Haur eta Nerabeen Nafarroako Kontseiluak. Adingabeak babesten lan egiten duen departamentuaren mende dago kontseilu hau.

Funtzioak

Haur eta Nerabeen Nafarroako Kontseiluak egingo ditu: bai adingabeak babesteko lege-**aurreproiektuei** eta lege-proiektuei buruzko txostenak eta bai adingabeak babestu eta prebenitzeari buruz urtero egindako planei buruzko txostenak. Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak txosten horien aholkuak eta iritziak jasoko dituzte, baina ez daude behartuta onartzera edo betetzera. Nafarroako Gobernuak eskatzen dizkion gaiei buruz ere egingo ditu txostenak.

Aurreproiektua:

lege, programa edo xedapen baten aurreneko testua, gero eztabaidatu edo aztertu egin behar dena.

Beste funtzio bat haurren eta nerabeen eskubideak eta beharren arreta bultzatzea eta informazioa ematea da. Adingabeekin lotuta auzo, herri eta hirietako entitateek egiten dituzten proposamenak ezagutaraziko ditu Kontseiluak, horren ardura duen departamentuak proposamen horiei arreta emateko.

Kontseiluaren osaera

Haur eta Nerabeen Nafarroako Kontseilua pertsona hauek osatuko dute:

- Kontseiluko lehendakaria.
Nafarroako Gobernuako kontseilaria izango da, adingabeen babesaren arloko eskumena duen departamentuko arduraduna.
- Adingabeen babesaren arloko eskumena duen departamentuko bi ordezkari.
Haietako bat lehendakariordea izango da, eta lehendakariaren ordezkari ariko da ezin baditu bere funtzioak bete, ez dagoelako, gaixo dagoelako edo postuari uko egin diolako.
- Adingabeak babestearekin zerikusia duten departamentuetako ordezkari bana.
- Adingabeak babesten eta haiei arreta ematen lan egiten duten organizazio eta elkarte nagusietako ordezkari bana, 6 gehienez ere.

- Adingabeen eskubideak defendatzen dituzten organizazio eta elkarteetako ordezkari bana, eta 6 gehienez ere.
- Nafarroako udalerrietako erakundeen 4 ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak aukeratutakoak.
- Desgaitasuna duten adingabeen eskubideak defendatzen dituzten erakunde guztiak ordeztzen dituen erakunde bat.
- Sindikatuen 4 ordezkari.
- Arartekoa edo hura ordezkatzeko duen pertsona bat.
- Haur eta nerabeen alorreko organizazio komunitarioen 2 ordezkari.

Gazteen organizazioen kide diren edo haietako jarduera eta zerbitzuetan laguntzen eta parte hartzen duten adingabeek Kontseiluan parte hartu ahal izango dute. Partaidetzarako Tokiko Kontseiluak ordezkatzeko dituzten adingabeek ere parte hartu ahal izango dute. Partaidetzarako Tokiko Kontseiluak herri eta hirietako adingabeen ordezkari bat dira. Kontseilu horiek proposamenak egiten dituzte, beren udalerriko haur eta nerabeen bizimodua hobetzeko.

Kontseilua osatzen duten pertsonak 4 urterako izendatuko dira. Gizonen kopurua eta emakumeena berdina izango dira.

Zehapenen araubidea

Arau-hauste administratiboak eta erantzuleak

Pertsona batek lege edo arau bat urratzea dakarren ekintza da arau-haustea.

Lege honetan egin daitezkeen arau-haustek ikusiko ditugu jarraian.

Arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

Arau-hauste arinak

Arau-hauste arinak izan daitezke:

- Pertsona batek zailtasunak jartzea adingabeei arreta ematen dieten profesionalei edo errespeturik gabe tratatzea.
- Arau batzuk ez betetzea, adibidez: datu pertsonalak babestea edo gurasoek adingabeak eskolara ez eramatea, horretarako arrazoirik eduki gabe.
- Adingabeen eskubideei kalte egitea edo adingabeak baimendu gabeko jokaeretan erakustea iragarkietan, adibidez: alkohola edaten edo drogak hartzen.

Arau-hauste larriak

Arau-hauste larriak izan daitezke:

- Norbaitek zenbait arau-hauste arin egitea.
- Ospitale batek ez identifikatzea jaioberri bat, legeak esaten duenaren arabera.
- Adingabe bat babesteko bere betebeharra ez betetzea norbaitek, adibidez: epaile baten aginduak bete gabe.
- Adingabeen arloan dauden debekuak ez betetzea, adibidez: diskoteka batean edo debekatutako beste toki batean norbait sartzen uztea edo alkohola edatera edo drogatzerara animatzea.
- Egoera larrien berri emateko betebeharra ez betetzea norbaitek, adibidez: adingabe bat arriskuan edo babesgabetasunean dagoenean.

Arau-hauste oso larriak

Arau-hauste oso larriak 3 motatakoak izan daitezke:

- Norbaitek zenbait arau-hauste larri egitea.
- Norbaitek kalte handi bat egitea adingabe bati, adibidez: erreparatzen zaila den kalte bat, gaizki tratatzea edo adingabe bat babesteko neurriak zailtzea.
- Norbaitek ez betetzea adingabe bati dagozkion arauak, adibidez: ez abisatzea adingabe bat babesgabe dagoela, edo adingabe bat adoptatzea beharrezkoak diren baimenak gabe.

Zehapen administratiboak

Zehapenak zigorrak dira, agintari batek pertsona bati ezartzen dizkionak, arau-hauste batengatik edo legea ez betetzeagatik. Adibidez: diru-kopuru bat ordaintzea Administrazio Publikoari.

Kapitulu honetan azaldu diren arau-hausteeak zehapen hauek dauzkate:

- Arau-hauste arinen zehapena idatzizko **ohartarazpena** egitea edo 1.000 eurora bitarteko isuna da.
- Arau-hauste larrien zehapena 1.000 eurotik 30 mila euro bitarteko isuna da.
- Arau-hauste oso larrien zehapena 30 mila eurotik 100 mila euro bitarteko isuna da.

Ohartaraztea: norbaiti abisua ematea edo errieta egitea, egoera bat ezin dela berriro gertatu esanda. Egoera berriro gertatzen bada zigorra gogorragoa dela esango zaio.

Zehapenez gain, kalte-ordainak egon daitezke adingabeei egindako kalteengatik. Kalte-ordain bat dirua edo onura bat da, pertsona batek jasotzen duena izan duen kalte edo galera batengatik.

Zehapen osagarriak

Arau-hauste bat eginez gero jar daitekeen beste zehapen bat hori egin duen pertsona edo erakundeari kentzea da jasotzen ari den dirulaguntza guztiak.

Arau-haustea larria edo oso larria bada, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak debekatu ahal dio pertsona edo erakunde bati **dirulaguntzak** jasotzea denboraldi batean.

5 urte bitartekoa izan daiteke denboraldi hori.

Adingabeei arreta emateko zerbitzu, etxebizitza edo zentroen ardura duten erakundeek zehapena edukiko dute arau-hauste larria edo oso larria egiten badute. Zehapenak hauek izango dira:

- Arau-haustea egin duen zentroa, etxebizitza edo zerbitzua aldi baterako edo betiko ixtea. Zentroa osorik ixtea edo zati batean ere izan daiteke.
- Adingabeei arreta ematen aritzen den entitate moduan duen aitortza baliogabetzea.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoarekin kontratuak egitea debekatzea 5 urtean.

Dirulaguntza:

Estatuak edo erakunde

batek, adibidez:

Administrazio

Publikoak, ematen duen laguntza

ekonomikoa, jarduera bat sustatzeko.

Arau-hauste bat egiten duten hedabideak, adibidez: telebista- edo irrati-kate bat, zigortuko dira jasotzen dituzten dirulaguntzak kenduta, eta ezin izango dira aurkeztu bakar bat ere jasotzeko. Gainera, zehapenaren berri eman beharko dute beren hedabidean.

Adingabeentzat debekatuta dauden produktuak, adibidez: alkohola, saltzen dituzten establezimenduak edo lokalak, edo sartzen uzten dietenak nahiz eta debekatuta izan, 5 urte bitarte edo betiko itxita zigortu ahal dira. Gainera, jasotzen dituzten dirulaguntzak kenduko dizkie Administrazioak, eta ezin izango dira aurkeztu bakar bat ere jasotzeko.



3. titulua.

Aurreneurriak

Prebenitzeak

kalte edo eragozpen bat ekiditen saiatzea esan nahi du, gertatu aurretik.

Adingabeen eskubideek kalte hartzea prebenitzeko

Nafarroako Foru Komunitateko Haurren eta Nerabeen Legeak

proposatzen dituen jarduketak

jasotzen dira titulu honetan.

Aurreneurrien helburuak

Lege honetan, prebentzioak helburu hauek izango ditu:

- Adingabeen eskubideak betetzen direla zaintzea, eskubide horiei buruzko informazioa ematen duten jardueren bidez.
- Aisialdiko jarduerak egitea, adingabeak eta haien familiak gizartean sartzea laguntzeko, eta adingabeen **autonomia** bultzatzea.
- Adingabeek beren bizitzako arlo guztietako garapenari kalte egiten dioten baldintzak, produktuak eta jarduerak eskuratzea debekatzea.
- Adingabearentzat kaltegarria izan daitekeen egoera bat gertatzeko aukerak murriztea. Hori lortzeko, behar ekonomikoak, emozionalak, hezkuntzakoak eta fisikoak bete behar dira, adibidez: etxebizitza bat, eta harreman egonkorrak eta seguruak sustatu behar dira.
- Adingabeari eta haren familiari laguntzea, babesaren eta prestakuntzaren bidez, kalte soziala eta familiarra ekiditeko.
- Nafarroako herri eta hirietan prebentzioaren ikuspegia lantzea, adingabeak haztean lagun eginez.
- Haurrak prestatzea hazten ari diren bitartean beren burua babesteko. Prestaketa horretan, beren autonomia errespetatu behar da, eta familiak, irakasleek, profesionalek eta beren bizitzan garrantzitsua den orok lagundu egingo diete.

Autonomia:

pertsona baten edo pertsonen talde baten gaitasuna, beren kasa jarduteko eta ezeren edo inoren mende ez egoteko.

→ Sarean lan egitea,
adingabeen eskubideei edozein kalte ekiditeko.

Ikastetxeen betebeharrak

Ikastetxeen arduradunak eta irakasleak
behartuta daude herriko edo hiriko entitateekin
eta Nafarroako Foru Administrazioarekin
elkarlanean aritzera,
adingabeak eskolara joaten direla ziurtatzeko.

Elkarlana adingabearen motibazioari
garrantzia ematea izango da,
adingabe bakoitzari egokitutako lan-moduak erabiltzea
eta familiaren elkarlana.

Ikastetxeak bertara ez agertzeko hutsegiteak idatziko ditu,
eta justifikatu gabe daudenen berri emango die gurasoei,
tutoreei edo zaintza dutenei.
Ikastetxeak neurriak jarriko ditu,
adingabeek justifikaziorik gabe eskolara huts egitea ekiditeko.

Erakunde pribatuek
eta ikastetxeekin kolaboratzen duten pertsonak
artikulu honetan azaldutako betebeharrak beteko dituzte.

Prebentzio komunitarioa

Prebentzio komunitarioa auzo,
herri eta ibarretan egiten diren
arlo desberdinetako prebentzio-jarduketan multzoa da.



4. titulua.

Babesa

Titulu honetan jasotzen diren ekintza guztiak dira adingabeak babesteko sistema, eta zerbitzu desberdinek osatzen duten sistema da.

Babes-sistemaren helburua hau da:

haurrak eta nerabeak beraien bizikidetzatalde naturaletan sartzea erraztea.

Eguneroko bizitza egiten duen taldeak dira horiek, adibidez: familia, eskola edo auzoa, garapen pertsonalerako eta gizarte-inklusiorako aukera ematen duten baldintza minimoekin.

Nafarroako Foru Komunitatean adingabeek dituzten babes-sistema desberdinak aztertzen dira titulu honetan.

Xedapen orokorrak

Babes-sistema

Adingabeak babesik gabe daudenean, neurriak eta baliabideak daude haiek babesteko. Neurri eta baliabide horiek babes-sistema osatzen dute. Adingabeak babesik gabe egon daitezke arrazoi hauengatik:

→ **Arrisku-egoeran daudelako.**

Arrisku-egoera gertatzen da familia batek zailtasunak dituenean adingabea zaintzeko. Adibidez: adingabearen ardura duen pertsonak ezin badio janaria erosi. Kasu honetan, babes-sistemak familiari lagunduko dio, desnutrizio-arriskurik ez izateko eta ez gaixotzeko.

→ **Babesgabetasun-egoeran daudelako.**

Babesgabetasun-egoera gertatzen da gurasoek edo tutoreek adingabeak babesteko betebeharrak betetzen ez dituztenean. Adibidez: adingabearen ardura duen pertsonak ez badio janaria ematen, ez badio uzten eskolara joaten edo gaizki tratatzen badu. Kasu horretan, babes-sistema arduratuko da adingabeaz, tutoretza administratiboaren bidez.

→ **Borondatezko zaintzan daudelako.**

Borondatezko zaintza eskatzen da gurasoek edo tutoreek ezin dutenean adingabea zaindu, justifikatuta eta egiaztatuta dauden arrazoiengatik.

**Borondatezko
zaintza:**
pertsona batek
Administrazioari
eskatzen dionean
adingabe bat
zaintzeko, berak ezin
duelako egin.

Adibidez: adingabearen ardura duen pertsonak luzaroan egon behar badu ospitalean gaixotasun larri bat sendatzeko eta adingabeak ez badu senitartekorik. Kasu horretan, babes-sistema arduratuko da adingabeaz beste pertsona hori sendatu bitartean. Egoeraren ondorioz adingabea ezin bada itzuli gurasoekin edo tutoreekin, Administrazio Publikoak adingabea babesgabetasun-egoeran deklaratu du.

Babes-neurriak

Babes-neurriak hauek izan ahal dira:

→ **Arrisku-egoerak deklaratzeko.**

Administrazioak adingabeentzat egiten duen deklarazioa da, gero adingabeez arduratu ahal izateko.

→ **Tutoretza administratiboa.**

Administrazio Publikoak adingabe baten babesgabetasun-egoera deklaratu du eta gero tutoretza hartu du bere gain.

Tutoretza administratiboari legegaren ministerioagatiko tutoretza ere esaten zaio.

→ **Tutoretza arrunta.**

Tutoreak beste senitarteko batzuk dira, aita eta ama falta direlako.

Senitarteko horiek hartu dituzte gurasoen funtzioak eta ardurak.

Adibidez: aitona-amonak izan daitezke, izebak edo osabak, edo beste senitarteko batzuk.

Epaileak erabakiko du nor izango den tutorea, adingabearen iritzia kontuan hartuta. Adingabeak ez badu senitartekorik, tutoretza administratiboa beharko da.

→ **Familiari laguntzea.**

Familiari laguntza ematea, adingabeak ongi garatzeko aukera izateko.

→ **Adingabearen zaintza onartzea.**

Adingabearen zaintza da pertsona batek funtzio batzuk betetzea adingabe baten alde. Administrazio Publikoak aukeratuko du nork egingo duen zaintza denbora jakin batean.

→ **Adingabea adoptatzeko proposamena.**

Administrazio Publikoak adopzioa eskatuko du, epaile baten aurrean.

→ **Beste neurri batzuk:**

- Jokabide-arazoak dituzten adingabeak direla-eta, lege honetan azaltzen diren neurriak.
- Adingabeei mesede egiten dien edozein neurri eta beren egoera familiarra, pertsonala eta soziala kontuan hartzen duena.

Adingabe babestuen eskubide espezifikoak

Babes-neurrien pean dauden adingabeek eskubide hauek dauzkate:

- **Arrisku- edo babesgabetasun-egoeretatik babesteko eskubidea,**
nahiz eta gurasoak edo tutoreak aurka egon.
- **Adingabearen iritzia kontuan hartzeko eskubidea,**
batez ere, bere independentziarekin lotutakoan
16 urtetik aurrera.
- **Informazioaren berri izan eta hura ulertzeko eskubidea.**
Adingabearen gainean hartutako neurriak,
zer diren, haien iraupena
eta dauzkan eskubideak jakitekoa.
- **Iritzia adieraztean entzunak izateko eskubidea.**
Adingabeak 12 urte baditu edo nahiko heldua bada,
bere kasuari buruzko erabakietan parte hartuko du.
- **Beren behar guztiak betetzeko eskubidea,**
eta beren autonomia pertsonala garatzen laguntzekoa.
- **Beren kasua ahalik eta azkarrena konpontzeko eskubidea.**
Beren intimitatea ahalik eta gehiena errespetatzea ere bai,
kasua konpontzen duten bitartean,
eta horrek ahalik eta gutxiena eragitea
adingabeak bere erabakiak hartzeko gaitasunean,
bere bizitzan eta familiaren bizitzan.
- **Ahal den guztietan familiarekin egoteko eskubidea.**
Adingabea familiarengandik banantzen bada,
familiarengana ahalik eta azkarrena itzultzea baloratzea,
egoerak horretarako aukera ematen duenean.

Ezin bada familiarekin itzuli,
familiarerkin harremana izatea lagunduko da,
ez bada kaltegarria adingabearentzat.
Familia berberak anai-arrebak adoptatzea
edo harreran hartzea lagunduko da.

- **Adingabeak beste familia bat eduki ahal izateko eskubidea,**
adopzioaren bidez, ezin bada itzuli bere familiarekin.
- **Adingabearen inklusio sozialerako eskubidea.**
Bere kultur nortasuna eta hizkuntza
errespetatuak izateko eskubidea du adingabeak.
Gainera, baliabide guztiak jarri behar dira,
gizartean harreman onak izateko
eta jardueretan parte hartzeko beste pertsona batzuekin.
- **Familiak adingabeei arreta emateko laguntza
jasotzeko eskubidea,**
eta beren behar nagusiak betetzeko laguntza.
- **Harreran dauden adingabeek
horretarako arrazoiak jakiteko eskubidea.**
Harreraren arrazoiak eta iraupena jakiteko eskubidea dute,
beren adinaren eta gaitasunaren arabera.
- **Pribatutasuna mantentzeko eskubidea.**
Adingabearen eta bere familiaren
egoera pertsonalari buruzko pribatutasuna,
adingabeaz arduratzeko eta bere interesak laguntzeko
beharrezkoa denean izan ezik.
- **Aldeekin harremana izateko eskubidea.**
Adingabeak babesteko
eta haiei arreta emateko ardura duten aldeak,
Administrazio Publikokoak direnak.

- **Erreklamazioak eta kexak jartzeko eskubidea,**
Administrazio Publikoari, beharrezkoa bada.
- **Laguntza juridikoa dohainik edukitzeko eskubidea,**
adingabeak babesgabetasun-egoeran daudenean.
- **Planifikatu eta informazioa emateko eskubidea.**
Eta bai adingabeen eskubideak betetzeko
beharrezkoak diren zerbitzuak eta babesak ere.
- **Hezkuntza-babesa eta babes emozionala**
jasotzeko eskubidea,
adingabea garatu bitartean.
Eta babesa jasotzekoa baita etorkizunaz,
prestakuntzaz eta lan-aukeraz
hartzen dituen erabakietan.
- **Beren jatorriari buruzko datuak jakiteko eskubidea.**
Pertsona baten jatorria non jaio den jakitea da,
eta bai nor ziren guraso biologikoak ere, besteak beste.
Baita gurasoen eta senitarteko
biologikoen jatorria ere, adinduna denean.
Gainera, informazio hori egokituta egongo da
adingabearen gaitasun emozional eta intelektualera.
Beren hezkuntzari buruzko erabaki guztiak jakiteko
eskubidea ere izango dute.
- **Administrazioak salatzeko eskubidea,**
auzitegien aurrean, jakiten badu
adingabe bati kalte fisikoa egin zaiola
edo delitua diren beste kalte larri batzuk.

Laguntza juridikoa:
abokatuek beren
ezagutza juridikoak
behar dituzten
pertsonei ematen
dieten zerbitzua,
pertsona horiek
behar dituztelako
beren eskubideak
defendatzeko.

Eskubide horiez guztiez gain,
familia-harreran dauden adingabeek
eskubide hauek edukiko dituzte:

- **Hartu dituen familiaren bizitzan parte hartzeko eskubidea.**
- **Harrera-familiarekin harremana edukitzeko eskubidea,**
behin harrera amaitu denean,
baldin eta Administrazioak baimentzen badu
eta adingabeak nahi badu.
- **Administrazio Publikoari informazioa eskatzeko eskubidea,**
harrerari buruz, eta harrera amaitzeko eskatzekoa,
adingabea nahiko heldua bada.

Eskubide horiez gain,
adopzio-egoeran dauden adingabeek
eskubide hauek edukiko dituzte:

- **Lege honetan azaldutako zerbitzu publikoei buruzko
informazioa eskatu eta lortzeko eskubidea,**
adopzioaren aurretik, eta ondoren,
zerbitzu horiek erabiltzekoa, beharrezkoa denean.
- **Abandonu-egoerak eragindako arazoak
aintzat hartzeko eskubidea,**
bizi izandako egoerarengatik,
eta afektu- edo maitasun-ezarengatik.
- **Adopzio-prozesu osoan
babesa jasotzeko eskubidea.**
- **Adopzio-prozesuari
buruzko informazioa jasotzeko eskubidea,**
eta adingabeak dauzkan eskubideak
babes-neurri honekin.

→ **Adingabea harrera-familiako seme-alabekin batera eskolatzeko eskubidea,**

adingabea ohikoa baino geroago eskolatu behar denean, adopzio- edo harrera-prozesu batean dagoelako.

Eskolatu:

haur edo gazte bati toki bat ematea eskola batean, ikasi eta derrigorrezko hezkuntza jaso ahal izateko.

Langile espezializatuak

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoak eta toki-erakundeek

adingabeei arreta eta babesak ematean espezialistak diren langileak edukiko dituzte.

Adingabeen babesari buruz beharrezkoa den informazioa jasotzeko eskubidea daukate langileek.

Genero-ikuspegiari buruzko prestakuntza

jasotzeko eskubidea ere badute, lege honetako berdintasun-printzipioa betetzeko.

Genero-ikuspegia:

emakumeen eta gizonen arteko aldeak erakutsi nahi ditu, eta nola gainditu alde horiek, berdintasunik eza ekartzen badute.

Balorazio Batzordea

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako espezialistek osatzen dute **Balorazio Batzordea**.

Adingabe baten babesgabeziaren eta hartu behar diren babes-neurrien informazioa emateko balio du batzorde honek.

Balorazio-batzordea:

egoera bat aztertzen duten pertsonen taldea.

Epaileen eta polizien laguntza

Administrazio Publikoak laguntza eskatu ahal izango dio epaile bati, neurriak betearazteko, gurasoek edo adingabeen legezko ordezkariak kasu bat ikertzea edo ezarrita dagoen babes-neurria gauzatzea zailtzen badute edo ez badute uzten egiten.

Ardura hazkuntzan, prestakuntzan, eskubideak eta betebeharrak babesteko ekintzan

Gurasoena, tutoreena edo zaintza dutenena da haurren eta nerabeen hazkuntza- eta prestakuntza-ardura. Adingabea ongi garatzeko beharrezkoak diren bizi-baldintzak bermatu behar dituzte pertsona horiek, haien bizitzako alderdi guztietan.

Haurren eta nerabeen etxebizitzarako eta familian bizitzeko eskubidea babestea

Adingabeak dauden familia bat **etxegabetzen** badute, Administrazio Publikoak konponbide bat emango dio familia horri, bizi ahal izateko. Gainera, babes soziala eta emozionala emateko urgentziazko neurriak sustatuko ditu Administrazioak, adingabeak ahalik eta kalte txikiena izateko.

Etxegabetzea:
pertsona bat edo familia bat bere etxetik kaleratzea, epaile baten aginduarengatik.

Bizikidetzarako

eta gurasoen eta seme-alaben arteko harremanerako eskubidea

Adingabeek gurasoekin bizitzeko eskubidea dute, legeak azaldutako egoeretan bereizita egotea beharrezkoa bada izan ezik.

Gainera, adingabeek beste senitarteko batzuekin harremanak izateko eskubidea dute, adibidez: aitona-amonekin eta anai-arrebekin, arrazoiren batengatik babestu behar badira izan ezik.

Adingabea ez bada bizi aitarekin, amarekin, legezko ordezkariarekin edo haietako bakar batekin ere, harremana eduki ahal izango du haiekin, legeak azaltzen dituen baldintzetan, eta adingabeen bisitak kontrolatzen dituen Administrazio Publikoaren zaintzapean. Administrazio Publikoak bisita horiek etengo ditu, adingabearentzako arriskua ekartzen badute.

Arrisku-egoera

Arrisku-egoerak eta -adierazleak

Larriak ez direnak eta luzaroan irauten ez dutenak arrisku-egoerak dira.

Adingabe baten kasuan, hauek dira egoera horiek:

- Gurasoen edo legezko ordezkarien aldetik, arretarik ez ematea edo adingabeari osasun fisiko eta psikologiko ona emateko gaitasunik ez izatea, baldin eta kalte txikia egiten badiote eta ez badute luzaroan irauten.
- Zigor fisikoa edo psikologikoa erabiltzea adingabearekin, gogorra ez bada eta etengabe egiten ez bada.
- Edozein motatako baliabide materialik edo emozionalik ez izatea, baldin eta adingabea gizartetik baztertzea edo babesgabetasun-egoeran egotea ekartzen badu.
- Gurasoen arteko liskarrak edo eztabaidak, bananduta egon edo ez, edo genero-indarkeriako egoera txikiak, adingabearen beharrak betetzea eragozten dutenak. Genero-indarkeria da gizonak emakumeari egiten diona emakume izateagatik. Indarkeria fisikoa izan daiteke, adibidez: kolpeak ematea. Emozionala ere izan daiteke, adibidez: irainak esatea.

- Jaio aurreko arriskua edo haurdunaldiak iraun bitartekoa. Haurdun dagoen emakumeak osasuna ez zaintzea da, adibidez: alkohola edatea, drogak kontsumitzea, haurtxoaren garapenari kalte egin ahal dion edozein ekintza egitea edo desgaitasun edo gaixotasun bat ekarri ahal diona.
- Adingabearentzat babesgabetasuna ekar dezakeen edozein egoera.
- Familiarekin esku hartzeko programak, baldin eta ez badute funtzionatzen edo familiak arazoak jartzen baditu hasteko edo garatzeko.
- Gurasoek edo legezko arduradunek adingabeekin dituzten jokaerak, baldin eta arriskuan jartzen badute haien ongizatea eta beren osasun fisikoa edo burukoa, adibidez: diskriminatzea emakumea izateagatik, adinarengatik, desgaitasuna izateagatik edo sexu-orientazioarengatik, adingabeak eskubide guztiak betetzea eragotzita.
- **Ablazioa edo emakumeen mutilazioa** jasatea, edo behartutako ezkontzen hitzemandak edo akordioak, neskato eta nerabeentzat. Behartutako ezkontzak dira aldeetako bat edo biak ados egon gabe eta baimenik eman gabe egiten direnak.

Ablazioa edo emakumeen mutilazio genitala: emakume edo neskato bati egiten zaion prozedura, organo genitalak aldatu edo lesionatzeko, hori justifikatzen duen arrazoi medikorik egon gabe.

- Amak, pertsonen salerosketako biktima gisa. Gizakien legez kanpoko mugimendua da pertsonen salerosketa. Helburua da lan-esklabotza, sexu-esplotazioa, behartutako lanak, organoak kentzea edo esklabotzako edozein forma moderno, gizakiaren borondatearen eta ongizatearen kontra.
- Adingabeak drogak edo edari alkoholduak kontsumitzea.
- Indarkeriakoa den edozein egoera adingabeen gainean, baita arrisku-egoeran dauden anai-arrebak edukitzea ere.

Babesgabetasun-egoera

Babesgabetasuna deklaratzearen ondorioa

Lege honetan azaldutakoaren arabera, adingabe bat babesgabetasun-egoeran dagoenean, Administrazio Publikoak egoera hori egiaztatu eta deklaratu du eta bere gain hartuko du adingabearen tutoretza. Gurasoek adingabearen gainean dituzten eskumenak etenda geldituko dira.

Babesgabetasun-egoerak

Hauek dira babesgabetasun-egoerak:

- Adingabearen abandonua, arduradunak falta direlako, ez dutelako nahi edo ezin dutelako bere zaintza egin.
- Tratu txar fisiko edo emozionala, jarraitua denboran, adibidez: genero-indarkeria familian, senitartekoek edo beste pertsona batzuek egindako sexu-abusuak edo beste pertsona batzuek adingabeei min ematen uztea.
- Adingabe batek kanean dirua eskatzea, delituak egitea edo prostituitzea sustatzea edo horretarako aukera ematea.
- Adingabeari min fisikoa edo psikologikoa ematea, jarraitua denboran, familiak edo legezko arduradunak elikadurako edo osasuneko betebeharrak ez betetzeagatik eragindakoa.

- Adingabeak drogak, alkohola edo beste substantzia kaltegarri batzuk kontsumitzea eragitea eta baimentzea, edo adingabearen senitartekoek, bereziki, aitak eta amak, droga- eta alkohol-arazoak izatea.
- Ez berreskuratzea adingabearen zaintza, Administrazio Publikoak kentzen dituen hori eragozten zuten neurriak.
- Adingabearen borondatezko zaintzan, legeko arduradunek ez badute arduratu nahi adingabearen zaintzaz edo zaintzaz arduratu nahi badute baina ez badaude horretarako baldintzetan.
- Adingabea ez eskolatzea, horretarako arrazoi justifikaturik izan gabe.
- Adingabeari egiten zaion kalte psikologikoa, baldintza sozial eta familiar txarrak edukitzeagatik.
- Gurasoen edo adingabearen zaintza dutenen buru-gaixotasun larria.
- Adingabearen zaintzaren erantzukizuna duten pertsonen falta edo pertsona horiek ezin dutela zaintza hori egin, adingabearentzat arriskutsuak diren arrazoiengatik.
- Kalte larriak jaioberriei, haurdunaldian emandako tratu txarregatik.
- Adingabeak zaintzeko legeetan haiek babesteko azaltzen diren betebeharrak ez betetzeagatik gertatutako edozein egoera.

Babes-neurriak

arrisku- eta babesgabetasun-egoeretan

Familia babestea

Kontzeptua eta edukiak

Familiak babestearen helburua hau da: familiaren bizitza, adingabearen ongizatea eta arreta hobetzea. Babes hori ematen da laguntza ekonomikoa emanda, materiala, babes soziala, hezkuntzako eta psikologikoa.

Babes horri esker lortu ahal da familia ez banantzea edo, adingabea familiarengandik bananduta badago, harekin itzultzea.

Familia babesteko jarduketak

Familia babesteko jarduketaren artean, profesionalak gurasoei laguntza ematea dago, seme-alabei arreta emateko, haiek hezteko eta zaintzeko eginkizunak betetzeko.

Laguntza horrek balio du arazoak era egokian konpontzeko eta familia-bizitza ona edukitzeko.

Hauek dira beste jarduketa batzuk:

- Adingabearen jarraipena familian.
- Adingabearen arreta, adingabeei arreta emateko zentroetan, eskolara joatea derrigorrezkoa ez den adinetan.
- Laguntza ekonomikoak.
- Profesionalen laguntza, etxean bertan, adingabea zaintzeko eta arreta emateko.
- Beste edozein jarduketa, adingabearen eta familiaren ongizatea lortzen laguntzen badu.

Zaintza

Kontzeptua, eskumena eta edukia

Babesgabezia gertatzen denean, adingabeak babesteko dauden neurrietako bat da zaintza.

Zaintza honela egin ahal da:

- Familia-harrera egitea:
bere senitartekoek
edo beste familia batek hartuko dute adingabea.
- Egoitza-harrera egitea:
adingabeen egoitza batean hartuko dute adingabea.

Adingabeak behar badu familia-harreran eduki dezakeena baino babes handiagoa, egoitza-harrerara joango da.

Zaintza noiz gauzatuko den

Administrazio Publikoak

adingabe baten zaintzaren neurria erabiliko du kasu hauetan:

- Babesgabetasun-egoera bat dagoenean eta Administrazioak bere gain hartzen duenean tutoretza legearen ministerioarengatik.
- Gurasoek edo legezko ordezkariak eskatzen dutenean, ezin diotelako adingabeari arretarik eman, egoera larri batengatik.
Kasu horretan, Administrazio Publikoaren laguntza hartzeko konpromisoa hartuko dute, egoera konpontzeko.
- Eta bai zaintza behin-behinekoa denean.

Administrazioak kontuan hartuko du

epaile batek agindutakoa, beharrezkoa den kasuetan, adingabearen zaintza aplikatu aurretik.

Borondatezko zaintza

Administrazio Publikoak

bere gain hartuko du adingabe baten zaintza, gurasoek edo legezko ordezkariak ezin badute adingabea zaindu, egoera larri eta frogatuengatik.

Tutoretza administratibo automatikoa eta tutoretza arrunta

Tutoretza administratiboa bere gain hartzea

Administrazio Publikoak
babesgabetasun-egoera deklaratzeko duenean,
Administrazio Publikoak
bere gain hartuko du adingabearen tutoretza.

Berehalako arreta eta behin-behineko zaintza

Administrazio Publikoak tutoretza bere gain hartu eta gero,
harrera-zentroek edo urgentziazko harrera-familiek
berehalako arreta emango diete adingabeei.
Adingabearen beharretarako egokiena den
jarduteko modua erabakitzeko beharrezkoa den denboran
egongo dira adingabeak harrera-zentroan edo
urgentziazko harrera-familiarekin.
Hala ere, gehienez, 6 hilabete izango dira.

Tutoretza arrunta

Adingabe baten babesgabetasun-egoeran,
Administrazio Publikoak bultzatuko du
tutore bat izendatzea,
tutoretza hori beren gain hartu ahal duten pertsonak badaude,
adingabearekin duten harremanarengatik
edo daukaten egoerarengatik.
Horrez gain, harrera-familiari
tutoretza izendatzea bultzatuko du,
ez badago aukerarik adingabea bere familiarekin itzultzeko.

Administrazio Publikoak lagundu egingo die adingabeen zaintza duten pertsoneri, tutoretzak edo harrerak bultzatzeko.

Ezaugarri bereziak dituzten adingabeak

Ezaugarri bereziak dituzten adingabeak

Ezaugarri bereziak dituzten adingabeak dira arreta espezializatua behar dutenak.

Adibidez:

- Desgaitasuna edo gaixotasun larri **kronikoa** duten adingabeak.
- Banantzea komeni ez den anai-arrebak.
- 4 urtetik gorako adingabe adoptatuak.
- Harrera-egoeran dauden eta 7 urtetik gorakoak diren adingabeak.
- Arazo emozionalak dituzten adingabeak, baldin eta arazo horiek beren eguneroko bizimoduari eragiten badiote.
- Familiar, genero-indarkeriako egoerak bizi izan dituzten adingabeak.
- Eta Administrazio Publikoak ezaugarri bereziak dituen adingabetzat jotzen duen beste edozein egoera.

Kronikoa:
luzaroan izaten dena.

Harrera

Harrera ezartzea

Administrazio Publikoak adingabe baten zaintza lortzen duenean, adingabearen beharrei hobekien erantzuten dien harrera-mota erabakiko du.

Babes Plan Indibidualizatua

Plan indibidualizatu batean, modu eskusiboan erantzuten zaie adingabearen beharrei.

Administrazio Publikoak adingabe baten zaintza edo tutoretza duenean, Babes Plan Indibidualizatu bat egingo du.

Bertan, helburuak eta jarduteko neurriak jasoko ditu.

Horrez gain, helburu eta neurri horiek lortzeko bete behar diren denborak ere azalduko dira.

Harrera laguntzeko neurriak

Administrazio Publikoak neurriak, programak eta laguntza-mota desberdinak emango ditu, adingabearentzat beharrezkoak direnean, arreta berezia jarrita desgaitasuna duten adingabeengan.

Familia-harrera egiteko aukeratzen diren familiek prestakuntza-ikastaroa egin beharko dute derrigorrez.

Bisiten erregimena, harremana edo komunikazioa jatorrizko familiarekin

Seme-alaben zaintza eta **jagoletza** duen aita edo ama batek haiekin denbora igarotzeko daukan eskubidea da bisiten erregimena.

Jagoletza: adingabe baten hezkuntzaren eta ongizatearen gainean edukitzen den erantzukizuna.

Administrazio Publikoak erabakiko du adingabeak gurasoekin izango dituen bisiten erregimena, denbora, harremana eta komunikazio-mota. Administrazio Publikoak kontuan hartuko ditu adingabearen beharrak eta bere iritzia entzungo du, baldin eta kalte fisiko edo emozionala egiten ez badio.

Harrera-motak

Harrera familiakoa edo egoitzakoa izan daiteke. Familia-harrera ere mota desberdinetakoa izan daiteke, harreraren denbora, harreraren helburuak eta adingabeak familiarekin edo hartzen duen pertsonarekin duen harremana kontuan hartzen baditugu.

Harreraren iraupena eta helburuak kontuan hartuta, harrera hori izango da:

→ **Urgentziazko familia-harrera.**

Batez ere 6 urtetik beherakoentzat, babes-neurri egokiena erabakitzen duten bitartean. Harrera honek ez du iraungo 6 hilabete baino gehiago.

→ **Aldi baterako familia-harrera.**

Gehienez ere 2 urte iraungo du, adingabea bere familiarekin itzultzea delako helburua edo beste babes-neurri bat aplikatzea erabakitzen dutelako. Beharrezkoa bada, Administrazio Publikoak luzatu egingo du harreraren epea.

→ **Familia-harrera iraunkorra.**

Administrazio Publikoak harrera-mota hau erabakiko du kasu hauetan: ezaugarri bereziak dituzten adingabeak direnean, adingabearen eta bere familiaren egoerak hala egitea gomendatzen duenean, edo aldi baterako harreraren 2 urteko epea amaitzen denean eta ez dagoenean aukerarik adingabea bere familiarekin itzultzeko.

Adingabeak harrera-familiarekin duen harremanaren arabera, harrera izango da:

→ **Harrera familia zabalean.**

Senidetasun-harremana dagoenean adingabearen eta hartzen duen familiaren edo pertsonen artean.

Adibidez: aitona-amonak edo izeba-osabak dira.

→ **Harrera beste familia batean.**

Ez dagoenean senidetasun-harremanik adingabearen eta hartzen duen familiaren edo pertsonen artean.

Bigarren mota hori, harrera beste familia batean, espezializatua izango da, baldin eta hartzen duen familiako kideetako batek, gutxienez, edo harrera egiten duen pertsonak prestakuntza espezializatua badu eta Administrazio Publikorako lan egiten badu.

Familia-harrera

Xedapen orokorrak

Familia-harreraren helburua adingabeari arreta aproposa ematea da familia- edo bizikidetz-egoera egoki batean. Adingabeak hartzen duen familiaren bizitzan parte hartzeko aukera ematen du familia-harrerak.

Bizikidetza, zentroetan

Administrazio Publikoak neurriak hartu ahal ditu zentroetan bizikidetza ona ziurtatzeko.

Administrazio Publikoak neurri hezigarriak hartuko du jokabide txarren kontra.

Adingabeek egindako faltak arinak, larriak edo oso larriak izango dira, hauek kontuan hartuz gero: indarkeria, asmoa, emaitza eta jokabide txarraren ondorioz kalte hartutako pertsonen kopurua.

Adopzio nazionala eta nazioartekoa

Adopzioa eta harrera iraunkorra ez dira gauza berbera.

Izan ere, adopzioan, adingabeak edukiko ditu

adoptatzen duten pertsonen abizenak.

Harrera iraunkorrean, adingabeak bere abizenak edukiko ditu.

Adopziorako baldintzak

Administrazio Publikoak erabakiko du

adingabea adoptatu ahal dela,

bizitza hobea edukitzeko

eta familia batek laguntzeko ongizate hori lortzen.

Adingabeak adopzio-egoeran egongo dira hauengatik:

- Filiazioa ezezaguna delako, hau da, adingabea abandonatu egin dutelako jaiotakoan eta familia ezezaguna delako.

- Auzitegiek tutoretza kendu dutelako edo aita, ama edo legezko tutore moduan aritzeko erantzukizuna eten dutelako.
- Aita, ama edo legezko tutoreak ados daudelako beren seme-alabak adoptatuak izatearekin.
- Administrazio Publikoak egoera batzuetan erabakitzen du, adibidez:
 - Adingabearen eta haren gurasoen arteko harremana oso txarra bada edo hautsita badago eta ezin bada konpondu.
 - Adingabearen eskubideak kalte hartzeko arriskuan badaude.
 - Hartutako adingabeak eskatzen badu.

Adoptatu ahal duten pertsonak edo familiek ezaugarri hauek bete behar dituzte:

- Nafarroan bizitzea.
Adingabearentzako familia aproposik ez badago, soil-soilik kasu horretan, Administrazio Publikoak aukeratu ahal izango ditu Nafarroan bizi ez diren pertsonak edo familiak.
- Administrazio Publikoak oniritzia eman behar die adoptatu nahi duten pertsonari edo familiei.
Administrazio Publikoak egiaztatzen duenean pertsona edo familia horiek **egokiak** direla, Administrazio Publikoak pertsona edo familia horiek proposatuko ditu adoptatzeko.
- Aurrekari penalik ez edukitzea, hau da, epaile batek ez zigortu izana pertsona hori, delitu bat egin duelako.

Egokia:
eginkizun edo xede jakin baterako beharrezkoak diren baldintzak edo baldintza ezin hobeak betetzen dituen.

Administrazio Publikoak baimena eman behar izan gabe eta babes-sistema jarraitu gabe, pertsonak edo familiek adoptatu ahal izango dute kasu hauetan:

- Adoptatua umezurtza denean eta adoptatu nahi duen pertsonaren senitartekoa.
- Bikotekide egonkorraren alaba edo semea denean, edo senar-emazteetako beste kidearena.
- Urte 1 baino gehiago daramanean zaintza-egoeran, adoptatzeko asmoarekin edo adoptatu nahi den pertsonaren tutoretza-egoeran.

→ Adinduna denean edo adingabe **emantzipatua**.

Adingabe bat emantzipatuta dago epaile batek agintzen duenean haren bizitzari buruzko erabakiak har ditzakeela eta erabat egin dezakeenean.

Adingabe emantzipatuak bere bizitzari buruz erabaki dezake, adinduna balitz bezala.

Emantzipazioa:

adingabe bat gurasoen zaintzatik eta kontroletik askatzea. Emantzipazioa gerta daiteke legearen ondorioz edo auzitegien agindu batengatik.

Egokitasuna

Administrazio Publikoak pertsonen eta familien eskaerak aztertuko ditu. Baloratuko du pertsona edo familia egokiak diren adingabeen behar guztiei erantzuteko. Eta horrez gain, adoptatzeak berekin ekartzen dituen betebeharrak eta erantzukizunak bete ahal dituzten baloratuko du.

Hauek dira betebegar eta erantzukizun horiek:
adingabeari bizimodu lasaia eta egonkorra ematea,
maitasuna, zaintza, laguntza hazteko,
eta adingabea bere bizitzaren alderdi guztietan
egoki garatzeko bidea ematea.

Adopzio nazionaleko proposamena

Administrazio Publikoak epaileari proposatuko dizkio
adingabe bat adoptatzeko onenak direla uste duen
pertsonak edo familiak.

Administrazio Publikoak kontuan hartuko ditu
adingabearen beharrak eta ezarrita dauden arauak.

Administrazio Publikoak epaileari adopzioa proposatu ahal dio,
pertsonaren edo gero adoptatuko duen
famiariaren baimena izan gabe.

Administrazio Publikoak hori egin dezake,
uste badu pertsona edo familia hori dela
adingabea adoptatzeko aukera onena.

Eta bai lehenago zaindu duelako
eta Administrazioak uste duelako ongi egin duela.

Adoptatzeko proposamena atzeratu egingo da,
Administrazio Publikoak egiaztatu arte
pertsona edo familia egokiak direla adoptatzeko
eta adingabea eta pertsona edo familia ados daudela.

Nazioarteko adopziorako balorazio-prozedurak dituen berezko ezaugarriak

Nazioarteko adopzioa adopzio-mota bat da. Haren bidez, pertsona bat, izatezko bikote bat edo bikote ezkondu bat, herrialde desberdinetako legearen arabera, beste herrialde batean jaiotako haur baten legezko guraso bihurtuko dira, betiko.

Nazioarteko adopziorako balorazio-arauek lege hau beteko dute eta bai adingabearen jatorrizko herrialdeko arauak ere.

Pertsona edo familia bat egokia bada adingabe bat adoptatzeko, jatorrizko herrialdeak egokitasun-ziurtagiria emango du. Egokitasun-ziurtagiria dokumentu bat da, eta bertan esaten da pertsona edo familia bat egokia dela adingabe bat adoptatzeko. Dokumentu horrek adingabearen jatorrizko herrialdeko modeloa errespetatuko du.

Nazioarteko adopziorako eskaera bat ez onartzeko dauden egoerak azaltzen ditu lege honek. Horrez gain, adingabearen jatorrizko herrialdeko legeetan azaltzen direnak ere nazioarteko adopzio bat ez onartzeko egoerak izango dira.

Nafarroako Adopzioen Erregistroa

Nafarroako Adopzioen Erregistroaren eginkizunak hauek dira:

adopzioei buruzko datuak kontrolatzea, inskribatzea eta mantentzea.

Adopzioen Erregistroan lan egiten duten pertsonak behartuta daude sekretua gordetzera egiten diren adopzioen erregistroei buruz.

Adopzio irekia

Adopzio irekia adopzio-mota bat da, eta aukera ematen du kontaktua egoteko familia biologikoaren, adoptatutako haurraren eta adopzio-familiaren artean.

Administrazio Publikoak adopzio irekia aukeratuko du adingabearentzat ona denean eta adingabearen anai-arreben arteko harremanerako mesedegarria denean.

Administrazio Publikoak adostuko du adingabearen eta familiako gainerako kideen arteko harreman-mota, komunikazio-mota eta bisiten kopurua eta denbora.

Zaintza delegatzea adoptatzeko helburuekin

Familia zaintzaileak
etorkizunean adoptatzeko helburua edukita
zaintza bat hasi aurretik,
eta familia zaintzaileak onartu eta gero,
Administrazioak adingabearen eta familiaren arteko harremana
erraztuko du,
adingabea familiarekin moldatzea
ahalik eta errazena izan dadin.

Teknikariek plan bat prestatuko dute adingabearentzat,
adingabea eta familia prestatzeko eta egokitzeko.

Arreta espezializatua jokabide-arazoengatik

Kontzeptua

Administrazio Publikoak babes-neurriak hartuko ditu jokabide-egoera larria duten eta besteei edo beren buruari min egin ahal dioten adingabeekin.

Helburua izango da gizartean integratzea, hezkuntzaren eta tratamendu psikologikoaren bidez.

Jarduteko neurriak

Administrazio Publikoak babes-neurriak hartuko ditu jokabide-arazo larriak dituzten adingabeek laguntzeko.

Hauek izan ahal dira neurri horiek:

- Hezkuntza- eta prebentzio-programak egitea, ekintza eta jardurekin, adibidez: lanak komunitatean, bisitak desgaitasuna duten pertsonei laguntzen dieten zentroetara, edo **adikzioak** dituzten pertsonei laguntzen dieten zentroetara.
- Lanerako prestakuntza bat egitea, adingabea prestatzeko etorkizuneko lan baterako.
- Hezkuntzako profesional espezialistek eta arreta psikologikoko espezialistek arreta ematea.
Neurri honek ekar dezake adingabeak zentro espezializatu batean sartu behar izatea, beste neurri batzuek huts egin badute.

Adikzioa:

jokabide arriskutsua edo produktu batzuk kontsumitzekoa, bereziki drogak. Oso zaila da uztea, mendekotasun psikologikoa dagoelako edo baita fisikoa ere.

Administrazio Publikoak
adingabearen eta familiaren baimena eduki behar du,
neurri horiek hartzeko.

Adingabea edo familia ez badaude ados,
Administrazio Publikoak
epaile bati eskatu ahal izango dio
baimena neurri horiek hartzeko.

Zaintza delegatzea egonaldietarako, asteburuko irteerretarako edo oporretarako

Delegatzea:
pertsona batek
bere erantzukizuna
eta funtzioak beste
baten esku uztea.

Zaintza delegatzea egonaldietarako,
asteburuko irteerretarako edo oporretarako.

Adingabe bat harreran dagoenean,
Administrazio Publikoak adostu ahal du
behin-behineko zaintza delegatzea kasu hauetan:

→ **Egonaldietarako.**

→ Asteburuko irteerretarako.

→ Oporretarako.

Era berean, harrera-familiei laguntzeko ere balio du
adingabeekin egiten duten lanean.

Egonaldia:
denbora jakin bat
toki zehatz batean
igarotzea da.
Adibidez:
ikasketengatiko
egonaldia da 3
hilabete igarotzea
beste herrialde
batean hizkuntza bat
ikasten.

Autonomia-programak eta bizitza independenterako prestatzekoak

Kontzeptua eta edukia

Bizitza independenterako prestatzeko programa bat hau da:
16 urte baino gehiago dituen
eta babes-neurri bat duen
adingabe bati egiten zaion jarraipena.

Profesional batzuek egiten duten jarraipen hori,
eta denbora jakin batean.

Helburua da adingabeari heziketa ematea,
gizartean eta lanean sartzea lortzeko, independentea izateko
eta autonomia handiagoa edukitzeko.

Hala, egoitza- edo familia-harrera amaitzen denean,
ahalik eta modu autonomoenean bizi ahal izango da.



5. titulua.

Jarduketak gazteentzako justizia sisteman

Delitu bat egiten duten adingabeentzat Nafarroako Foru Komunitateak erabiltzen dituen legeak, arauak eta prozedurak, mekanismoak eta baliabideak, erakundeak eta organoak ezartzen dituen da gazteentzako justizia sistema.

Bosgarren tituluan azalduko ditugu gazteentzako justizia sisteman sartuta dauden adingabeen baldintzak.

Gazteentzako justizia sistemaren mende dauden adingabeak

Gazteentzako justizia sistemaren mende dauden adingabeak dira Adingabeen Erantzukizun Penalaren legeak azaltzen dituenak, eta neurriak behar dituztenak gizartera modu egokian itzultzeko.

Epailleek esango dute zer neurri aplikatu behar zaizkien adingabeei.

Neurri gehienak hezigarriak izango dira, adingabearen alderdi guztiak garatzeko eta bai **gizarteratzea** eta familian sartzea ere.

Gizarteratzea:

zigor bat betetzen ari zen pertsona bat berriro gizartean sartzeko ekintza. Kontzeptu penala da.

Adingabeak 14 urte baino gutxiago baditu, neurriak izango dira lege honetan azaldutakoak, 3. eta 4. tituluetan.

Xedapen gehigarriak

Lege baten xedapen gehigarriak dira lege baten amaieran egoten diren arauak edo neurriak. Alderdi batzuk adosteko jartzen dira, adibidez: arau bereziak, lege bat aplikatzeko **salbuespenak** jartzeko edo beste alderdi batzuk, lantzen dutena edo beren forma kontuan hartuta, legearen gainerako artikuluetan tokirik ez dutenak.

Salbuespena:
erregela arruntetik kanpo gelditzen den norbait edo zerbait.

1. xedapena:

Estigmatizazioaren prebentzioa

Adingabe atzerritarrei ez zaie BDA esan behar (erdaraz MENA).

“Bakarrik dagoen adingabea” esan nahi du eta mespretxuzkoa da. Arbuioa edo iritzi negatiboa eragin dezake adingabeen gainean.

2. xedapena:

Publizitatea eta telebistako eta beste ikus-entzunezko komunikabide batzuetako programazioa

Administrazio Publikoak jakitera eman beharko ditu adingabeek telebista ikusteko debekuak, mugak eta baimendutako ordutegiak.

3. xedapena:

Haurren Eguna

Nafarroako Gobernuak urtero antolatuko du Haurren Mundu Eguna ospatzea Nafarroako Komunitatean. Haurren Mundu Eguna hori bat etorriko da Nazio Batuen Batzarrak aukeratutako egunarekin. Harrera-familiek egiten dutena eta adingabeei arreta eta babesa ematen aritzen diren profesionalak egiten dutena ezagutarazteko balioko du egun horrek.

4. xedapena:

Lege honen sustapena

Administrazio Publikoak ahalik eta gehiena ezagutaraziko du lege hau eta adingabeak, haien familiak eta haien babesa ukitzen dituzten arazoak. Entitateek eta erakundeek egiten duten jarduera ere ezagutzera emango du, eta harrera-familiek egiten duten lana aitortuko du.

5. xedapena:

Garapenerako lankidetzaz

Herrialde pobreenetako ekonomia eta gizartea hobetzen laguntzeko Administrazio Publikoak eta entitate pribatuek egiten dituzten jarduketan multzoa da garapenerako lankidetzaz.

Garapenerako lankidetzaren barnean, adingabeei arreta eta babesa ematera bideratutako dirulaguntzek beste dirulaguntza batzuek baino garrantzi handiagoa izango dute, baldin eta Garapenerako Lankidetzaren Legeak esaten duena betetzen bada.

6. xedapena:

Ikasketak direla-eta, Nafarroako familiek hartzen dituzten atzerritar adingabeak

Ikasketak direla-eta, Nafarroako familiek hartzen dituzten atzerritar adingabeek lege honetan azaldutako eskubide guztiak berdin edukiko dituzte.

Erreferentziak

Irakurketa errazean dauden beste lege batzuk (gaztelaniaz baino ezin dira eskuratu):

→ **Espainiako Konstituzioa.**

Deskargarako lotura:

https://www.plenainclusion.org/sites/default/files/la_constitucion_espanola_en_lectura_facil.pdf

→ **Desgaitasuna dutenen eskubideen eta haien gizarte-inklusioaren lege orokorra.**

Deskargarako lotura:

https://www.plenainclusion.org/sites/default/files/ley_general_de_derechos.pdf

→ **Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa.**

Deskargarako lotura:

<https://www.anfasnavarra.org/wp-content/uploads/2021/04/LORAFNA-Lectura-Fa%CC%81cil-y-Accesible.pdf>



